

anaitasuna

1978. EKO UZTAILAREKOA-366G. ZENBAKIA - 50 PZTA.


11

*Entzun dugu
eta ulertu ere bai.*

*Baina ez zaigu
buruan sartzen.*

GEHIEGI DA...

*Horregatik ditugu
estatuarengandiko
kondenak kondenatzen
eta bihoaz
gibeletik hartzen.*





A. B. ESPANA, N.º 2111

zure aurrezkieen banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen

AURKIBIDEA

- 3 Editoriala
- 4 Konstituzio honi ez.
Euskal Herrian
- 6 "Haurren Ziemna jaialdia".
- 8 Xan eta Aldalur.
- 10 Ohar laburrak
- 14 Elkar Ikuska: Letamendia.
- 19 Nazioartekoa: Videlak 3 Demokra-
ziak 1.
- 22 Anaitasunaren oharra.
- 24 Nazioartekoa: Txinakeriak.
- 26 Marzinger Z. Esukal Umorerik
politikoena.
- 28 Muntaketa literari eder bat.
- 29 Eva Covoren burruka.
- 30 Dibortzioa.
- 32 Hitz Egin. Hitzegiteko metodoa.
- 36 Postal horrialdea.
- 37 Gurutzegramak.
- 38 Zilarrezko krabelina.

ANAITASUNA

ZUZENDARITZA, IDAZKARITZA, ETA LANKI-
DEAK: J. Arzelus, T. Trifol, J. Llerandi, X. Kinta-
na, M. Aldana, X. Gereño, J. M. Torrealdai, M.
Alvarez, A. Olarababal (Gipuzkoa), I. Zabaleta
(Araba eta Nafarroa), M. Lanhatoua (Iparral-
dea), J. Agirreazkuenaga (Bizkaia), J. R. Etxe-
barria, P. Agirrebaltzategi, A. Eguzkitza, X.
Mendiguren, I. Azkoaga, A. Loroño, J. Mendi-
zabal, J. Azurmendi, J. Iturbe, B. Atxaga, I.
Urtasun, M. Haranburu, M. Lasa, I. Mendigu-
ren, Jon Etxebarri, R. Ordorika, E. Enzlonde, J.
L. Alvarez, S. Laffite, M. Pagola, J. Idigoras, K.
Anakabe, E. Martin, J. Aurre.
MAKETAPENA: E. Zumalabe
FOTOGRAFIA: Susperregi.
KOMIKILARIA: A. Olarababal, I. Lauzirika.
PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA: J. Idigoras,
A. Uribe.
IDAZKARITZA, ADMINISTRAZIOA ETA HAR-
PIDETZA: Zabalbide 68 - BILBO. Tf: 433 58
00/7/8/9.
MOLDIZTEGIA: Iparragirre S. A. Carretera de
Galdácano s/n. BILBO.

OHARKIZUNA

Anaitasuna ez da arduratuko artikuluen edu-
kiak duketen erantzunkizunaz. Beronek ez du
esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestalde-
tik, beregain hartuko du editorialearen eta bere
izenaz izenpetutako artikuluen erantzunkizuna,
berau baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi-
kildoa.



Lerro hauk idazten dugunerako jadanik betikoek Rodrig ez eta Barandiaran hil dituzte, bata Iruinean eta bestea Donostian. Euskal Herriko prentsez eta irratiaz Iruinean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen gertatzen denaz jabetzen gara, Estatuko komunikabide ofizialek Euskal Herriko gertaerak beren gezurrez iluntzen ahalegintzen diren artean.

Mugaz bestaldean frantses polizien indar zapaltzaileek ez dute ere pertsonak harantz honantz ibiltzeko aukerak askatasuna ere errespetatzen. Frantziako komisaldegietan haurrak ere atxilotzen dituzte. Mundu hau guztiz zoraturik dago.

Euskal Herriaren nortasunaren kontra burrukatzeko ba dirudi bide guztiak erabil ditzaketela. Horrela izanik, zer esan dezakegu gure burruak defendatzearen bide berberak erabili behar ditugunean? Nork kondena dezake hemen burruka harmatua?. Sozial demokratek burjes demokrazia arriskutan ipintzen denean burruka harmatua kondenatu egiten dute. Euskal burjes demokraziarik ere ez dagoenean nola kondenatu daiteke burruka hori?. Kondenatzekotan zer kondenatzen da?: Benetako euskal demokrazia minimo bat debekatzen duen burruka harmatua ala euskal demokrazia minimo baten alde dagoena?.

Zertaz oinharritzen da, zein legek ematen dio Espainiako gobernuari Euskal Herri osoak historian zehar eskatu duen, berea den jabetasuna, kentzeko baimena?

Ez al da egoki eta bidezko indar zapaltzaileak Euzkaditik botatzea? Ez al da egoki eta bidezko euskararen benetako ofizialtasuna? Ez al da egoki eta bidezko gure herri nortasuna defendatzea? Ez al da demokratikoa gureak diren industria, paisaia, komunikabideak, ekonomia eta herri honetan dagoen guztia guk langileok kontrolatzea ere?

Ez al daude prest hori guztiori eegiteko?. Zertarako daude prest?. Jendea hiltzeko beti egon dira. Zertarako daude orain prest?. Zertarako?.

Dagoeneko Kostituzioari buruz plazaratuak dira esaera berri batzu: "Kostituzio hori ez", "Sasi Kostituziorik ez", "Honelako Kostituziorik ez", etab. Esaera horik KASEko alderdiek, HERRI BATASUNAK, EIAK, EMK-k eta abarrek jautiki dituzte.

Gehiengoan alderdiak, beren "hitzarmena" bide, egundoko erantzukizuna badute ere, euskaldunontzat arrotz den Kostituzioaren maratila ixtera doaz. Funtsezko ahalmenik gabeko autonomia murriztu eta Estatu erdirakoiaren menpeko finkatu. PSOE eta PC-k ardi larrua erantzirik otso inperialisten hortzakadaz kinkatu dute dagoeneko Kostituzioan. Ortzki Autodeterminazio eskubidearen aldeko proposamena egitean, aipaturiko bi alderdiek ez dute onhartu. Areago, Espainiako nazionalitateen elkargoa eragitearren, eta abiadapuntu baliagarritzat joz, federalismoa eskatu zuenean, berriz, P.N.V. bakarrik atera zen federalismoaren alde. PC eta PSOE federalista deklaratu dira orain arte, baina Kostituzioa eratzerakoan federalismoaren kontra jarri dira, dirudienez "luzaroko helburua baizik ez da federalismoa, era guzietara ere Kostituzio hau ez da Espainiako nazionalitateetan oinarritzen, eta, beraz, ezin daiteke federalista izan". Egia esan, alderdi bi horien jokoak ez da beria, beren egiazko politika sozial inperialismoa baita mundu guzian. Hori bai, Euskadi "pazifikatu" behar omen da lehenik, herri borroka desagertaraziz, "terrorismo" instituzionala, ordea, normaltzat hartu behar omen da Europa osoan bezala. Autogobernu eta beste hitz biribilak ezpain hortzetan darabiltzaten bitartean, erdikoikeria darie alde guztietatik, eta azaleko autonomia barrugarri bat inposatu digute U.C.D.ko kapitalista inperialisten eskutik. Gero, ez da harritzekoa CC.OO. edo PC-en (Tolosako Goardia) abertzaleon etsai eta gorputz zanpatzaileen lankideak aurkitzea.

KOSTITUZIO HORI EZ

Ongi lotuak geratu dira Kostituzio horri dagozkionak: Erregeko gobernuera bakarra, azalhutsezko autonomiak eta boteririk gabeko autogobernuak, indar harmatuen goi mailako eskuhartzea, langileei despido librea, kapitalismoa edo merkatu libreko ekonomia, gaztelania hizkuntza nazional eta ofizial bakarra (hizkuntza autonomoak hor konpon), funtsik eta mamirik gabeko eskubide foralen aldeko deklarapenak, andreen eskubideak ez jasotzean bere zampaketa instituzionaltzen da, gazteriaren eta sozial baztertuekin beste hainbeste. Hain zuzen ere, Kostituzio atzerakoa eta euskaldunontzat probokazio garbia.

leginak egingo ditu bai parlamentuan bai senatu ganbaran, Job-ek baino pazientzia handiagoz, Kostituzio horri zirrituren bat ireki beharrez. Azkenik, Ortzik eskatu bezala, PNVko parlamentariak ere, mailetak bildu eta etxeratzea litzateke egokiena. P.N.V.-koek dute orain hitza.

KASEk beste bidetik joko du KASEko bi alderdiek, oraindik legetik kanpo, nabarmen utzi dute Suarezen sasidemokrazia eta bere kapitalismo erdirakoa. Eta Kostituzio hori behar bezala erantzun ahal izateko KASEn teknik taldea eratu da, erakundeen ordezkariak eta Mikel Castells, Iñaki Esnaola, Añua, eta beste burrukalari



P.S.E.k konstituzioari baietz.

Zenbaiten ustez, Kostituzio honek finkatuko omen du erabat Espainian Burjes Demokrazia. Baina, honetaz Montzon, Mikel Castells, Txomin Ziloaga eta abarrekin ados nago. Kostituzio honek, Euskal Herrirako behintzat, estabilitatea eta demokrazia ez baina, inoiz ez bezalako frustrapena, desestabilizapena, eta herri burrukak sortuko ditu. Halako sasi Kostituzioa Madriletik ezartzeak abertzale eta estalisten arteko amildegia sakondu baizik ez du eginen.

P.N.V.-tarren politikagintzak, zuhertasunak eta parlamentarismoak gora jo dute, eta politik irtenbideak agortzen ari dira. Oraindik ere P.N.V.-k aha-

independenteekin osatua. Euskal Herriko demokraziak KASEko alternatibatik iragan behar baitu.

Gobernuak berak ere ba daki, ezarri nahi duen Kostituzioarekin ez dituela denak berarekin Euskal Herrian, eta kalte latzak lezarzkiekeela Estatu osorako ere, horregatik negoziaketari heldu dio. Euskal Kontseilu Orokorraren bidez (Benegas) ETA edo KASEkin harremanetan hasiak dira bakea (edo armistizioa) nola lortuko. Kostituzioaren hesi eragozpenak eta mamirik gabeko autonomiaren erakundearekin ordea, amore ematea murrizteaz latsagarri baten truke litzateke.

HAURRAK ZINEGILE, DONOSTIAKO "HAURREN ZINEMA JAIALDIAN"

Euskal Zinegile Elkarteak lehen aldiz Haurren Zinema Jaialdi bat muntatzen du. Jose M. Clavel, Kontxi eta Eskisabel euskal zinegileak ditugu ideia honen bultzatzaile bizkorak. Zinema bidez biharko egunerako kultur azpiegitura bat gertatu nahi da, sorkera edo kreatibitate arloan haurrek berek, bere kasa, beren irudimeña hazi eta hedatu dezaten.

Bestalde, norgehiagoka bizian eta dirua nola irabaziko eratu dugun gizarte kontsumista eta despersonaldu honetan guztiz egoki letorke haurrek beren kontura betiko giza balioak beren erara eratu eta agertzea, hau da, lurreko eta abere zehatzak, lagun urkoarenganako maitasuna, adiskidetasuna eta gizartearekiko harremanak.

Haurrek bere asa, jator eta garbi jasoko digute familia eta gizarte giroa gizarte giroa, ikastola ta lagun artea, beren poz eta beldurra... horregatik Zinema Lehiaketa hau haurren edo mutikoaren kezka guztien agerkai bilakatuko da, eta Lehiaketa honetan ez da ez garaile ez galtzailerik izanen, pelikula guztiak emango baitira, eta guztiak izanen dira sarituak zinema materialiez. Gainera, bakoitzari Zinema Lehiaketaren oroigarri bezala Nestor Basterretxearen irudi bat emango zaio.

—Oso ideia polita, baina nortzuk lagunduko dizue?

—Jose M.^a Clavel. *Donostiako CATen lankidetzarekin kontatzen dugu. Eta zenbait merkataletxe eta banketxeren laguntza ere espero dugu.*

—Haur zinegile hauk ez ahal dira papa-semeak bakarrik gertatuko, zinegintzako makinak garestiago direla kontuan hartuz?

—J. M. *Uste baino makina gehiago daude familietan, eta gehinentzat ez dut uste familian edo lagunartean bilatzea neketsua izango denik. Bestalde, gurasoek egin dezaketen erregalorik baliotsuenetakoa eta guziz edukagarria litzateke, hainbeste txakurkeriak erosten baitira gaurregun.*

—Ez da makina iristea bakarrik, pelikula batek nahiz eta mutua izan bere gastuak ditu.

—J. M. *Haur zinegileen pelikula gastuak nolabait ere ordainduak izanen dira. Zinema materialak ematekotan gabiltza, horretarako jakina, merkataletxeekin kontatzen duu.*

—Zinema lehiaketa hauk bultzatzeko pentsatu al duzue ikastola eta ikastetxeetan?

—J. M. *Oraindik ezer gutti egin badugu ere, ikastoletan eta abar zinegintza bultzatzeari guztiz interesgarria deritzogu.*

—Beste zerbait zuen asmo edo proiektu honetaz?

—J. M. *Bai, denborarekin eta ahalik eta azkarren Donostiako "Haurren Zinema Jaialdia" nazioarteko bihurtu.*

Lehiaketarako Oinharriak oraindik ez dira zabaldu, baina ikastoletan, etab. materiala prestatzen ekin diezaizoten, hara hor aurreoinharri batzu:

Alex

Zinema Lehiaketarako Oinharriak

Partehartzaileak:

Nahi duten haur guztiak. Partehartzaile bakoitzak gehienera bi pelikula presentatu ditzake, eta bere iraupena gehienera 30 minututakoa izanen da.

Pelikulak:

Izan daitezke, Single 8, Super 8 edo 8 mm. normalean, zuri-beltza edo koloretan, soinu hotsez ala mutu.

Gaia:

Gaia libre da, izan daitezke irudimen

gaiak, dokumentalak, erreportaiak, esperimentuzkoak, etab.

Izenak ematea:

Haur zinegileen izenak eta pelikulak abenduak 15erako eman behar dira. Pelikulak bidali:

Centro de Atracción y Tusmo (CAT)

Reina Regente s/n DONOSTIA TLF. 42 31 80

Informaketa zehazterako galdatu Kontxitarengatik. Tlf. 42 31 80.

Projezioak:

Projezioak abenduak azkeneko astean eta urtarrilak 5-aren artean emanen dira.

Kamarak erabiltzeko solasaldi eta ikasketak:

Zinema Jaialdian partehartu eta zinegintza ikasi nahi dutenentzat ikasketak, batzu antolatuko dira zinema teknikari buruz: Filmaketa, Muntatzea, Soinua, etab. Haurren Aste Handian, uztailak 31tik abuztuak 6aren artean ospatuko dira.

EUSKAL HERRIARI DESAFIO BAT: EZETZ EUSKARARI

*Eskuinetik ezkerrera: Inchauspé, Dubocq,
Haritxelbar (erdian), prefeta, Labéguerie,
Dutournier. Photo Enbata.*



Ekainaren 17an, Atarratzen elkartu dira, Zuberoako eta Behenafarroako alkateak. Hor zeuden ere, Inchauspé eta Dubocq jaun famatuak, baita ohi den bezala Noirot-Cosson edo *Noir-le-cochon* = Zerri beltza, departamenduko prefeta berria. Esan nahi dut, euskaldunen zapalkuntzaren sinbolo benetakoa bera. Hots, jaun prefeta edo frantses inperialismoaren lehen aintzindaria. Jaun korbatadunen, atorra zurien eta beraien burua teknokratari daukatenen biltzarre interesgarria. Interesgarria diot, egun horretan Euskal Herriko eskuinak gerra deklaratu baitio euskarari: *"euskara frantsak duen mailan jartzea?... jaun prefetak berak euskaraz egin beharko luke"... "Ez, ez eta ez, nora joango ginatete?... ba diotzuet zuetaz burlatu nahi dute horrelako proposamenak egiten dituztenak."* Hau izan da Inchauspé deputatu jaun guztiz eskuindarraren deklarapena. Bistan da, hemen kolpatu nahi

zutena zera zen, Haritxelbar jauna, baina beronen bitartez euskararen alde daramagun burruka guztia kolpatu dute. Lehen lehinik eta bereziki ikastolak. Beraz gerlan gaude. Abertzale guztioi Inchauspek desafio bat bota digu eta ez herrabe ez beldurti ez gare-lako hain zuzen, erantzuna emanen diogu. Kontuz, Inchauspéren horrelako hitzek pisua dute eta nork daki ze ondorio dakarkiguten?

Nola sortzen ze eztabaida?

Orain duela zenbait denbora Laburdiko auzapezen biltzarreak, Euskarari buruzko eskakizun batzu Giscard Presidentari bidaltzea erabaki zuen. Oroitzen gara, nola orduko prefetak, Monfraix jaunak euskaraz irakurri zien alkate guztiei eskutitz oso oso batez. Berton *"euskara euskaldunen hizkuntza nazionalizat onhartzea eta berau frantsesa bezala irakaskuntzan ere sartzea"*. (Ikus Enbata 483. alea).

Dena den, Laburdiko alkateen ekintza teoriko honetan Behe Nafarroako eta Zuberoako alkateak ez izateak ez gintuen orduan kekkatzen zeren uste genuen kontzientzia lasaitzeko berdin eginen zutela, beti teori mailan, jakina. Baina hara hor Inchauspéren kontratasuna gogorak zer sortu digun. Problema da alderdi politikoek hontaz zer eginen duten jakitea. Dударik ez, horrelako gertakizun politikoak, Inchauspék egin duena politika baita, guztiz landu, aztertu eta plazaratu behar dira.

Gauzak ongi aztertzeke esan dezagun lehenik nola izan zen Haritxelbar jaunaren proposamena. Berak nahi edo proposatu zuena hauxe zen:

Frantziako presidentari eskakizun batzu bidaltzea alde batetik eta bestetik, herri bakoitzaren dirukutzak libera baten zerga (1 F.) paga zezala.

Ordu berean, Inchauspé jauna erotu zitzaigun eta Seaskaren "Ikastolak" izeneko hilabetekari bat irakurtzen zuela alkate batzarre osoa bere alde jarri zuen. Ikastolen kontra bereziki. *"Badirudi Seaskakoek nazio bat egin nahi dutela eta nazio bat eginez euskara ez da salbatuko"* zioen Inchauspék, Haritxelbar jaunak zioena baino urrunago zihoala Seaska esanez.

Harrigarriena zera da, demagogia horrekin ezer zehatzik proposaturik gabe, biltzarre oso bat berarekin bat egitea. Ez dugu ulertzen alkateen litaltasuna edo eta beldurra. Inchauspék izugarriko eragin politikoa duela esatea ez da beraz gezurra.

Herriaren erantzuna?

Zer erantzunen dio Herriak? Ezin esan daiteke. Ikastoletaz arduratzen diren pertsonak, sakonak eta behar den modura izanez gero, ez dago dudarik haien erantzuna pisuena izanenen dela. Zergatik ez asma, esaterako, Garazin bertan eta jaun deputatuaren etxe aurrean manifestaldi ixil bat?... Honelako ekintzak behar beharrezkoak dira Iparraldean euskal kontzientzia zabal dadin. Hain zuzen, inork ez delako ukatzen bere euskaldun izaterik. Euskal izate horri euskararen arazoa eta burruka lotzea behar beharrezkoa zait. Aurreratzeko posibilitate hau ez dezagula gal, eskuinaren pettoez balia gaitzen.

Labur laburra esan genezake, Behenafarroako eta Zuberoako auzapezen biltzarrak egiazko faxista baten aurpegia ikusi duela.



ANAITASUNAREN OHARRA

Anaitasuna oso gaizki dabil ekonomiaren aldetik. Hau dela eta Uztailean ale bat eta gainera oso atzeraturik atera da kalera.

Uztailean, ohi den legez beste ale bakar bat ateratzeko ahalegin guztiak eginen ditugu.

Bestaldetik aldaketak egon dira Anaitasunan barne. Gestio osoa langileon eskuetan geratu da. Hau dela eta independenteagoak gara.

Anaitasunako helburuak ez dira horregatik aldatu.

Euskal prentsa herrikoi bat lortzea. Prentsa egikorra eta objektiboa. Benetako kazetaritza egitea.

Alderdi politiko guztietatik libre izatea.

Gure Herriaren alfabetatze maila kontuan hartu eta euskaldun berrientzako prentsa ere izatea.

Zu ere honen alde bazaude
LAGUN EZAZU ANAITASUNA.
BIDE ASKO DUZU
LAGUNTZEKO.

HARPIDEDUN BERRIAK
KANPAINAK, HITZALDIAK

DIRU LAGUNTZA. ZURE ESQU-
TAN EGON DAITEKE.

Tfnoa: 4335807/...9

Bankuko kontua: B.B.4970 00 137

Luzatu egin da kataplasma ipintzeko ordua baina hala nola ipini beharko zaio. ...Eta hala hola ipiniko digute.

Gebiegi sakatzen denean obiala hausten da. Eta Euskal Herria, euskararen herria, euskal langileon herri hau trapu zahar bat bihurtzen ari zaigu. Nori komeni zaio trapu zaharra haustea?

...Eta gure herriko semealabak hiltzen edo asasinatzen dizkigutelarik, kontrolak jarri, terrorismo hitza aplikatu, estado de excepcion edo eta de alarma sortu. Madarika dezagun horrelako hitzak euskaraz esango diren eguna!

Diruaren izenean, politikaren izenean prentsa maneiatu, ETaren kontra burrukatzeko indar errepresibo bereziak antolatu. Teknika sofistikatuenak handik ekarri, Alemaniara joan teknikari eta tresnen bila.

USAko enbasadaren bitartez, Bilboko, Bordeleko eta Donostiako kontsuletxeen azpitik edo eta goitik ikertzaileak, poliziak, eskuineko talde armatuak, Triple A edo antzekoak bereizi, sailkatu, prestatu eta abar eta abar. Horrela mintzatzan da Madrileko Barne Ministeritzapean. Erantzule agiria: Martin Villa.

Algeriako politika kolonialista: Legionea, armada, pilaketak, turismoa, emigrazioa, hiletak langeraldiak, bonbak, lebergailuak, bahiketak, manifestaldiak. Kaashba algerianoa, Donostiako parte zaharra, Iruineko Zapateria, Estafeta, San Juan eta abar. eta abar.

Gero, burjabetasuna, jaraintza, independentzia. Baina lehenago, Argentinako Football txapelketa, zozketak, farrak, jaialdiak, zorionean. Triste heroiko eta polita. Osoz. Heroikoa ez balitz negargarria izanen litzateke.

Esker abertzaleei, euskal ezker guztiari, manifestaldi bat debekatu dio Bizkaiko Gobernadore Zibilak. Konstituzioaren kontra egin beharko manifestaldia demokratikoki debekatuta. Bortizkeriaren beste agerpen bat. Gobernuak ez du KASEkin inolako tratu publikorik egiten, demokraziari ez baitzaio gustatzen bitzen askatasuna. Portell jaunaren alde, egin dezatela otoitz San Pablaren epistolak irakurri dituztenak. Demokraziak armak mintza daitezela nabia-gu duelako.

Gobernuaren karta, joko zikina EAJren baldintzan ipini du. Emango dio kirtena. Nola ez?. Betiko politikak dantzan jarriko gaitu gu. Madrilen kontra jokatzeko beharrean azalduko da berriro ere Euskal Herria. Hemen dena indarrez edo burrukaz lortu beharko da. Pentsa beza gobernuak pentsa bezate militarrek zer izanen litzateke EAJ ere konstituziotik baztertzea. Madrilek jakin beharko luke nor den bele eta nor arrano. Ez galdetu guri berbera otoi, txantxangorriok galsoroetan galtzen bagar a zer ez litzaiguke gertatuko garaietan?.

E.H.



ipar aldea

XAN ETA ALDALUR: BI ABERTZALE GARTZELAK PEAN EDO FRANTSES DEMOKRAZIA-AREN BENETAKO AURPEGIA

Biltzarre ireki bat "Ligue des droits de l'homme" -elkarteak estakaturik iragan da apirilaren 26an Baionan. Biltzarrearen gaia: Aldalurren "Frantziatik" "Espainiaratzea". Mahai inguruan zeuden alderdi politiko batzu eta albistari. Enbata, Jazar, EHAS, Ezker Berri, PSU, Amnistia internazionalakoak.

Karia horretara hitzegin dugu EZKER BERRIren lehendakari batzuekin.

—Zer esan da elkarrizketa horretan eta zer erabaki hartu duzue?

—Erabili dugu maiatzaren lehenaz baliatzea. Esan nahi dut, egin horretako mobilizazioaren bitartez, petizio bat irekiko dugula. Mozio bat bidaliko dugula jaun Suprefetari. Eta hirugarren urrats bat "Ligue des droits de l'homme" elkartearekin salaketa zabalduko dugu nazional mailaraino.

—Nor dabilta "Ligue des droit de l'homme" horretan?

—Pradier jaun medikua hor genuen "ligue-aren" ordezkari eta Maniort abokatua lege mailaren azterlagun".

—Zergatik "amnistia internazional" eta nola jasoko digu Aldalurren arazo konkretu hori??

—"Amnistia internazional" arduratuko zaigu Aldalurren kasuaz eta ba dakigu arazo honetan nahi duela bere azterketaren egokitasuna eta objektibitatea gorde. Horregatik arazo honetaz ez da, dakigunez, hemen bertakorik arduratuko zaigunik, baina internazional mailan pasatuko da guztia.

Gainera ez dugu ongi ulertzen, zergatik eta zertarako Espainol Estatuak, nahi duen baitezpada preso-hori, enegurik gaizik ez zaio sortuko horren bitartez. Argi dago guretzat, Giskardek bere Espainiareako bidaia aurrean egindako presenta dugula Aldalur.

Ekintza horri, izugarri larria deritzogu. Nabari da,

gaurkoan, Europako 21 Estatuak izenpetu duten akordio antiterrorista, horrelako saltze higuinetarako erabiliko digutela. Nabari da ere, konfusio berdina nahi dutela ekintza politikoak eta be te ekintza guztiak nahastuz. Bi ekintza horien arteko apartatzerik ez digute egiten eta geroan errefuxiatuek emanak izanen dira. Hori da gure arriskua.

—Eta Xan abertzale gazte gartzelaratuaz, zein da Ezker Berriren eritzia?

—Xanen alde komite bat jaso dute, baina Ezker Berri ez da oraingoz horretan barne. Zergatik? Gure kanpo egotea bortizkeriari buruz daukagun analisiak agintzen digu, baita, azken hilabete hauetan komite horrek erabili duen konportasioak. Hain zuzen, zer konportasio dauka komiteak? Marginalisatuenak. Bereziki, orma paretan egindako graffitiak, (Hendaiako herrietxearen paretetan egin dira) metodo ezegokiak bezala salatzen ditugu. Ba dakigu gauden kontestuan, geure eragina, baita indarra guztiz ttikiak direla eta horregatik, ez dugu jendea bizkar ezarri behar. Nabari da beraz, borroka era hauk, guztiz gazteenak direla eta jendea hozten baidarik ez dutela. Hargatik, komitetik kanpo gaude.

—Noiz mobilizatuko zarete, orduan?

—Ez da pentsatu behar ez dugula ezer egiten eta geure lana daramagu Xanen alde. Baina ba dakigu ere, Iparralde honetan mobilizazio indarra oso ttipia dela eta oraindik ttikiagotzen Xanek borroka bortitzaren tankera aukeratu digulako. Orduan, mobilizazioak, benetako abertzaleak baizik ez ditu ukituko. Beraz, auziaren mementuan egin beharko dugula benetako mobilizazioa uste dugu. Ez sei hilabete aurretik. Gainera, argi dago guretzat Xan, militante politikoa dugula, eta nahiz ez honen borroka tankerarekin adoz izan defendatuko dugu.

M.L. UHAITZIE



"BAI EUSKARARI" KANPAINA BARRUTIK

Gizonek egiten dute historia, ala historiak egiten ditu gizonak? Esan nahi dut: nork du eragina, gizonek historian, ala historiak gizonengan?

Aipaturiko esaldiak ez dira hitz joko entretenigarri batzu. Bere garrantzia dute, eta oso handia gainera. Eta nik ez dakit zuek nola erantzungo dituzuen galderok, baina ni neu behintzat, gizonaren protagonismoarekin geratzen naiz.

Adibidez: irakasle on batek, nahiz eta liburu-metodo txarra eduki bere ikasleei erakusteko, ikastaroa aurrera aterako du. Bestalde, irakasle txar batek, nahiz eta liburu-metodirik hoberena eskuartean erabili, ikastaroa hondatu egingo du.

Beste adibide bat: fabrika bate-tako zuzendari on batek, nahiz eta fabrika krisisean egon, aurrera eramango du lantegia. Baina zuzendari txar batek, fabrikarik hoberena ere, hondatu egingo du.

Beraz, gizonaren protagonismoa. Lan batetarako gizonik egokiak hautatzearen garrantzia...

* * *

BAI EUSKARARI kanpaina 1977-ko urriaren inguruan hasi zen mamitzen, Juan Mari Covian-en ideia baten eraginez. Oso interesgarria litzateke ANAITASUNAK Coviani elkarrizketa bat egitea, asmo hori nola sortu zen, eta eman ziren lehen urratsak azal ditzan. Nik ez dakit deus horretaz. Kanpainan oso berandu sartu nintzen, dena planteiatu zegoenean. 1978.eko maiatzaren lehen egunak ziren, Jose Luis Lizundia eta Albaro Legarreta bila etorri zitzaizkidanean.

Kanpainarako batzorde berezi bat zegoen eta astean bi aldiz biltzen zen. Bilerara lehen aldiz joan nintzenean, bizpahiru izan ezik, beste guztiak ezezagunak nituen. Denetara hamabost bat lagun ginen. Aurkeztu ninduten. Euskaltzaindiko bakarra Juanjo Zearreta zen. Gainerakoak, espezialistak, bakoitza bere gaian. Hasi eta berehala konturatu nintzen non nengoen, eta aurrera eraman behar zèn kanpainak arrakasta izugarrikoa lortuko zuela. Hasieran, bakoitzari folio batzu banatu zizkiguten, bileran eztabaidatu behar ziren puntuekin. Puntuok, argi presentaturik, ongi ordenaturik, egoki sailkaturik zeuden. Egitaraua prestatu zuenak, ba zekien zertan ari zen eta bistan zegoen azterketa lan serio baten fruitua zela. Egileak berak, Alberto Elorriagak, zuzendu zuen bilera hura, eta hurrengoak. Puntu bakoitza sakon eztabaidatzen zen, erabaki bat hartzen zen eta erabakia beteko zuen pertsona hautatu. Orduan, eta ez lehenago, hurrengo puntura pasatzen zen.

Kanpaina honetan garrantzi handia eman zitzaion publizitateari. Maiz entzun nuen han zeudenen ahoetatik esaldi hau: publizitate egoki batekin, edozer sal dezakezu. Beraz, batzordean, bilera guztitara, lehen mailako hiru publizista etortzen ziren: Artola, Beaskoetxea eta Enrike Ibabe. Lehen biak isilak, zerebralak. Hirugarrena, hitz egitera emanagoa, taldearen portabotsa. Publizitatearen estrategia, anuntzio bakoitzaren testuak, sakonki eta arretaz eztabaidatzen ziren. Kostua, publizitatearen kostoa, milioika kontatzen zen. Baina zifra izugarri haiek ez zituzten atzerantz botatzen. Bere profesioa ongi ezagutzen zuten, ondorenak kalkulatu zituzten, dena zientifikoki aztertua zegoen, desbiazio posibleen portzentaiak ere azterturik geratu ziren.

Gero, kanpaina martxan ipini zen. Hilabete t'erdian jo eta ke lan egin da. Bide berriak urratu ditugu. Hutsak ere izan ditugu. Maiz lanak gaudituz egin gaitu. Juan Mari Covian, kanpainaren asmatzailea, goiz eta arrats egon da kanpainaren martxa begiratzen eta zaintzen. Behin, amets bat izan zuen, ideia bat bururatu zitzaion, maiz gertatzen zaigun bezala. Baina adore nahikoa izan zuen aurrera egiteko. Talde bat osatu zuen, plan bat eratu zuten, eta martxan ipini zen. Juan Mari, kanpainan zehar, beti lanean ikusi dut. Asmatzen, eztabaidatzen, eta lana, lan praktikoa, egiten. Bere lan profesionalari ehundaka ordu kendu dizkio, eta atsedinari eta loari nork daki zenbat. Kanpainan denetarik egin du, lankide bat izan dugu edozein gauzatarako. Horregatik hasieran esan dut: gizonaren protagonismoan sinesten dut. Yosu, Orue, Joserra, Iñaki, Itziar, Nere, Mendia, Mendizabal, Etxebeste, Gema, Binué... eta Imanol Amuritzza, Pello Telleria, Basterra... eta Zubibarri, eta Castañosa-eko fanfarria.... Eta 140.000 karta prestatu dituzte...

Gizonek egin dute kanpaina, eta orain kanpainak, bere ondorenekin, kutsatuko ditu Euskal Herri osoa eta bere gizonak.

Xabier Gereño



EUSKARAZKO IKASTA- RO INTENTSIBOAK

Anitz irakasle eta ikasle hasi da berriro ere udaro bezala euskarazko ikastaro intentsiboak prestatzen. Alde guztietatik jendea hortaz arduratzen da. Borondate oso ona dago bazter guztietan.

Ikastaro hauetan parte hartzen dutenentzako asko langileak edo estudiantek dira. Ziak diru guttidunak. Gauza hauetan nabaritzen dena berehala da irakasleen makaltasuna. Badakigu zapalkuntza nazionalaren ondorioak direla berak eta ezin dugu inol kolpatu. Oso interesgarria izanen litzateke alde batetik hizkuntza biziaren pedagogia bat prestatzea, arau batzuren bidez edo eta ikastaro batzuren bidez aurrera eraman behar da ideia hau. Bestaldetik, material eza ere nabaria da. Ez dago ez grabaketarik, ez irudirik, ez testu egokirik, ez irakurgairik eta beste. Metodoaz aldiz, oso ugari ditugu. Honetan arduratzen direnak lan handia eta laguntza eskasa dute. Hala eta guztiz ere, ezin egin dezakeguna zera da: euskara ikasten ari den bat, hiru edo lau urtez hor saiatzen ikustea eta azkenez asperturik euskara abandonatu beharra, esaldi bizi bat ezin sortuz.

PRENTSARI GOBER- NUAK LAGUNDU NAHI

Gobernuak esan duenez prentsa pribatuari bere laguntza ekonomikoa prestatuko dio. Berau egiteko ez da ideologia bat edo beste kontutan hartuko. Laguntza emateko antolatzen diren neurketak publikazio bakoitzak urtean zehar galdu duen zifratan oinharrituko dira. Ministrariaren ordezkariak ez zituen hala ere gauzak ongi argitu, ez baitzen esan zeinentzat izanen zen laguntza hori; aldizkari guztientzat edo soilik egunkarientzat. Gure ustez ministeritzak egin nahi duena zera da: UCDk eta PSOEko teknokrata berriek ateratako Diario 16, El imparcial, eta antzekoak laguntzeko ahalegina da berori. Seguru gaude guk eta beste batzuk ez dugula hortaz ez biperririk ere irabaziko.

EUSKAL HERRIKO ARRANTZALEAK: GERO ETA GUTTIAGO

Bai halaxe da. Bizkaia eta Gipuzkoako itsasondoko arrantzale herriak beherantz doaz. Hau dela eta, beren ekonomiaren oinharriak arrantzan dauzkaten herrien etorkizuna problematsu agertzen zaigu. Arazo gehiegi hemen-

go uretan arrainaren bila abiatzeko, eta hauen artean 100 milena ez da ttipiena izan.

Bizibidearen bila, gure arrantzalerik asko urruneko etsasoetara joaten ari da. Nigeriara, Venezuelara eta Mexikora. Batzuri gauzak ongi aterako zaizkie, beste batzuri ez hainbeste. Dena den, sei hilabete edo gehiago eman beharko dute kanpoan etxetik agertu ezinik. Eta normala denez, horrenbeste denbora kanpoan egoteko, batzuk beren familiak herri horietara eramatea pentsatua dute jadanik. Segur asko beste familia askotan ere hartuko da erabaki hori.

Tristea da bizibidearen bila kanpora joan behar izate hori. Euskal Herriko emigrazioa ez da hain arin bukatzen. Euskarak ere sentituko du kolpe hau. Euskara arrantzale herrietan gorde bada, beren ekonomi moduagatik ere izan da hein batetan. Bestalde, joan diren horiekin euskararen zati bat joan zaigula ere esan dezakegu, eta ez dakigu berriz nola bihurtuko zaigun.

"Herri baten izaera hizkuntzak adierazi egiten du, herri baten nortasuna hizkuntzak aintzineratzen du. Hizkuntza baten bidez herriek gizarte berezi bat sortzen dute". Honela mintzatu da Iñigo Agirre, EAJren diputatua uztailaren 5ean kongresoaren aurrean. EAJK eta E.E.k batera gatzelania

ezagutzeko beharra eta eskubidea kendu nahi izan dute konstituziotik. Denok dakigunez, abertzale guztiek egindako zuzenketa hau ez du kongresoak onhartu. Oso aipagarria da, behinez gero, ideologia barik hizkuntzari buruz, kongresuan dauden abertzaleak batera jokatzea. Ea, konturatzen garen, euskarazko asuntu honetan, nahiz lapurtera, bizkaiera edo batua izan, hemen benetako jabea zera dela, Euskal Herria, euskaraz egiten duen herria. Txalo beroenak beraz, batzuri zein besteri. ANAITASUNA.

MONCLOAKO EUSKAL ITUNA EGIN NAHIEZ

Lan kontseilaritzaren bidez, Eusko Kontseilu Nagusiak, syndikatu eta jabeagoren ordezkariak dei bat zabaldu zien orain dela gutti, komisiu tripartita bat aurrera eramango duen aurreprojetu berezi bat finkatzeko asmoarekin. Komisiu hau bi atalez osoturik geratuko litzateke. Atal batean patronalaren ordezkariak, bestean aldiz, syndikatuena. Multzo oso hau lan kontseilaritzaren arduraduna den Iglesias jaunaren lehendakaritzaren pean geratuko litzateke. Kontseilariaren eritziz, komisiuaren helburua, langilego eta jabeagoren arteko harremanak edo hobe esateko, bien arteko iskanbilak epaitzea izanen litzateke. Beraz, akordiorik ezean eta parte biek eskatuz gero, kontseilaritzak epaituko luke. Epaitetaren izaera beharrezkotzat hartuko litzateke. Behin eskatuz, parte biek kontseilaritzaren erabakia onhartu beharko lukete. Komisiuaren barrutia Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izanen litzateke, Nafarroa, ohi den bezala, bazterturik geratuz.

L.A.B.en projektua sakonki aztertu da. Hala ere, Labek dioskunez ez da oraindik behin betiko akordiorik egon erakunde honen barruan. Horretarako militante guztiek debate honetan parte hartu behar dute.

DIBORTZIOA

(1)

Ezkontzak sortu dituen loturen apurtzeari esaten zaio dibortzioa. Espainiar estatupean gaudenok, gaur egun ez dugu eskubide hori. Bigarren errepublikan ba zegoen dibortzio lege bat, baina faxismoak, beste eskubide guztiak bezala, kendu egin zuen lege hau. Oraingo konstituzioan, ez da dibortzio hitza aipatzen, disoluzioaz mintzatzen da, hau nola konkretatuko den azaltzea Kodex Zibilari utziz. Behinik behin, konstituzioan ezkontzaren haustezintasuna aitortzen ez denez, bidea irekia geratzen da dibortziorantz.



Gizarte matxista batentzat emakumea plazer objektu bat da nagusiki.

Errepublikako legea

Errepublikaren konstituzioak zera zioen: "Ezkontza sexu biantzat eskubide berdintasunean oinarritzen da eta bai bien akordioz, bai baten eskaeraz kausa zuzen bat dagoenean, apur daiteke". Gero, parlamentuan eztabaida gogorrak izan ziren dibortzio lege hura aurrera atera baino lehen. Azkenean, 1932.eko otsailan onhartu zen legea. Gero akainean, estatuak ezkontza zibila besterik ez zuela ezagutuko azaldu zuen. Horrela, erlijio askatasuna benetakoa izan zen, estatua eta eleiza bereiziz. Orduko dibortzio lege hark, hutsune asko zituen, baina denbora haie-tako aurrerakoiene zela esan deza-

kegu. Aurrerapen handiena hau izan zen: errudun gabeko dibortzioa onhartzea, hots, akordiozko dibortzioa posible egitea. Ez baita beharrezkoa errudun bat izatea bikote bat bereizteko... Hala eta guztiz ere, kausa batzuetan adierazten zituen lege honek, dibortzioalegezkontzat jotzeko, akordiorik ez ba zegoen. Kausak, hurrengo hauek izan zitezkeen: adulterioa, bigamia, emaztearen edo alaben prostituziorako erabilketa eta seme-alabak gaiztotzea edo hauek egiteko nahia, arrazoirik gabe familia ez gordetzea, urte betezko familia uzte erruduna, bi urte bitartean ezkonkidea kanpoan egotea, bizitzaren aurkako ekintzak ezkonkidearengan edo umeengan, tratu txarrak, injuria astunak, ezkontzak

inposatzen dituen betebeharrak ez betetzea, ezkontzatik at harturiko venerear gaixotasun larriak, beste gaixotasun grave eta kutsatzaileak, ezkontza baino lehen izanik ezkonkideari estaltzen zaizkionean, hamar urtetik gora askatasun ezarri kondanatu dutenean ezkonkidearen hiru urte bitartean egitez bereizketaren askatasunez onhartuta izan denean, ezkonkidea erotu egitea bada.

Dibortzioa eskatzeko zera behar zen: adinekoa izan eta ezkontzatik bi urte pasa izatea.

Lege honek sei urteko bizitzea izan zuen. Gero berriro faxismoa etorri zenean, lehen eskuraturiko aurrerapenak pikutara joan ziren.



*"Euskal errefujiatuei
ez diegu kartarik emanen
Frantzian"*

Eske, batzuk nola egiten duten politika! Harri-garria da!

Agian, iraultza bide hori jakin gabe! Zertan ari dira partidu abertzaleak Euskadiko futbol ekipo nazionala sortzeko eta erreibindikatzeko?

Inork ez baldin badu EGINen bota zen ideia haintzat hartzen, neu hasiko naiz erreinbidikazio hori oihukatzen.

Bai Jauna bai! Bai euskarari! eta bai diruari!

Gaurko mila kontuak, BAI hitza dute nagusi:

ESB eta ANV elkartu dira ia, eta gauza onuragarria da Euskadirako. LAIA eta HASI konbergentzia bidetan hasi omen dira, eta onuragarri da baita ere.

Ezsisioak behar ditugu izan euskal politiko atalean. Gu ez baikara martzianoak, ez desberdinak. Agian sigla gehiegi dabil fideo zopetan, baiña tira! Oraindik abezedarioran hizki asko dugu erabili gabe.

Ezsisioek txar dutena zera da: ohitura bezala hartzen dela, hau da, zigarroa erretzeko ohitura bezala, eta orduan egunero zatikatze berri bat egiteko gogo sor dakiguke.

Horren irtenbidea slogan batetan datza: siempre hay que tomar una copa de menos. Hau da, ez dugula gure zatikatze gogo azken tantaraino edan behar, baizik beti zerbait gorde etzirako.

JOSU ALEZURI

GURE ERREINBINDIKAZIOA; EUSKADIKO FUTBOL EKIPOA

Giscard D'Estaing, Frantziako presidentea, etorri zen Espainiara eta gauzak argi utzi nahi izan zituen: "euskal errefujiatuei ez diegu kartarik emanen Frantzian, zeren Espainian demokrazia ezarri baita"

Baita, O kasualitatea! Giscard etorri zen asteberean, bi gazte erahil zituen goardia zibilak kontrolatan. Eta ondoren euskal talde harmatuaren erantzuna ailegatu zen polizien ateetaraino, beste sail bat tirokatuz.

Eta segi beti horrela!

Gaur, goardiek erahiltzen dutela bat, ba bihar besteek egiten dute lan berbera. Y tiro porque me toca... de oca a oca.

Jende askok eskuak burura eramaten ditu, ea noiz bukatuko ote den joko tragiko hau. Baina, dirudienez, ez da denbora motzetarako kontua. Zoritxarrez. Erantzunik duenak hitz egin beza, hitzgeteko ahalmenik baldin badu bederen.

Eta futboleko mundiala amaitu zen Argentinan. Videla diktadoreak ere jokatu zuen beren partidua, eta bat eta zero irabazi zuen iraultzaileen kontra.

Noski! Euskadiko Partidu komunistak ere laguntza eskaintzen baldin badio, seguru garaituko duela. Iruinean, pantaila zabal eta handi bat ipini zuten euskal komunistek finaleko partidua dotore aski ikus zezan jendeak.



Noski! Espainian demokrazia ezarri baita.



MILA KONTU

NAFARROAKO APEZAK
SOLDATA GUTTIREKIN

Nafarroako elizbarrutia gaizki dabil diruz. Krisi ekonomiko larri bat pasatzen ari da.

Nafarroako elizbarrutian 600 parrokia baino gehiago dira, eta 870 apez baino gehiago ere bai. Horrek, hainbeste parrokia eta apez izateak, efektu handi du apezan soldatetan.

Ekaineko hilabeterarte, Nafarroako apez bakoitzak 14.500 pezeta kobratu ditu. Soldata horri, meza sariekin ateratzen dutena erantsi behar zaio, hau da, beste 3.000 pezeta gutti gora behera.

Oraindik ba da beste atal bat: apez batek familiariko bat mantentzen baldin bada, beste 2.500 pezeta jasotzen ditu eta beste batzuk 1.750 pezeta, segun zenbat puntu dituen.

Baina garbi dagoena, 14.500 pezeta kobratzen zituztela ekainerarte eta hemendik aurrera, 18.000 pezeta kobratuko dituztela. Horrela bada, zerbait igoen zaie euskal apezei soldata.

Eta Nafarroan pasatzen dena zera da: erabakiak hartu ondoren, dirurik ez dagoela apezei pagatzeko.

Agian, jende askok hori ez du ulertuko, zeren ez baita ulertzeko oso erraza.

Nafarroako Elizbarrutiak ondasun asko du: bai etxeak, pisuak, lurraldeak, bitxi garestiak, etabar. Ondasunik ez zaio falta, baina dirua eskuartean bai.

Itzenbide batzu entseiatu dituzte, eta ez dute erresultaturik eman. Adibidez, gastuak urritu dituzte eta sentsibilizazio kanpainak ere egiten dituzte jendearengan. Baina, kia! Ba dirudi, gaurrango kristauek ez dutela apezei laguntzeko borondate handirik.

Egin diren sentsibilizazio bi kanpaina horietan frakasu gorria jaso dute elizbarrutiko arduruek.

Beste alde batetik, Estatuarengandik jaso dezakeren diru laguntzetan ez dute fidantzarik.

Benetan, Nafarroako apezak ez dabilta oso segururik diru aldetik. Horiek ere, beste edonork bezala, lan egiten dute, eta soldata txikiak jaso behar. Hau da komedia ebangelizatzaileentzat!

Aita Migel Iraizozek, Iruineko diosesian dagoenak, argitu ditu gauzak. Dirudienez, fabriketan lan egiten duten apezak oso gutti dira. Gainera, kristauek ez dute laguntzeko kontzientzia argirik.

Gauzak honela, Nafarroako elizbarrutiak hasi beharko du, partidu politikoek egiten duten bezala, militante kuotak kobratzen bere kristauen artean.

Lehenbizi jan egin behar baita, gero ebangelioa zabaltzeko. Eta apezak ere humanoak dira jateko asuntuan.

INAKI ZABALETA

SUKALDERAKO SALTSAK



BARATXURI ZOPA TOLOSAKO MODURA

6 lagunentzat beharko dituzu: Baratxuriburu bat, 300 gr. ogi zati, 100 gr. txorizo, biper berde bat, tomate poto bat edo 3 tomate handi, gatza, biperhautsa eta olibolioa.

— Zuri, zati eta dora itzazu zartagina batetan baratxuri guztiak. Frijitu ondoren, erretira itzazu. Zartagina berean dora itzazu ogi zatiak oliboliotan. Kontuz ez erre, ogiak olio asko jaten du eta. Erretira itzazu ere.

— Bota berriro olibolio pixkat zartaginara eta garbitu eta zatitu dituzun tomateak eta txorizoa doratuko dituzu pixkat. Bota iezakiozu tomateari gatz pixkat eta goilarakada ttiki bat azukre. Utz ezazu hau guztiau egosten 10 minutu edo.

— Ogi zatiak ezik, doratu dituzun guztiak eta biper berdea lapiko batetan ipiniko dituzu. Ipin bi litro ur lapikoan eta utz egosten ordu erdi bat. Ordu erdia pasatuta bota itzazu ogi zatiak barrura, zuzendu gatzaz eta biperhautsaz, eta utz egosten 10 minutu gehiago.

On Egin.



elkar ikuskika

Ihazko ekainaren 15 hauteskunde eztabaidatu haietan, "Euskadiko Ezkerra" koaliziotik Patxi Letamendia aukratua gertatu zen Gipuzkoan. Urtebete iragan da harez gero. LABeko abokatuen Bilboko Ezkerraldeko bulego batetan "Ortzi"rekin egon gara eta hemen dago jasoriko elkarrizketa.

ANAITASUNA—Ekaineko hauteskundeetatik urtebete pasatu denean, nolako balantzea egingen zenitke zeure parlamentuko ihardunaldiaz?

Patxi Letamendia.—Epe desberdin bi bereiziko nituzke nik. Bata ihazko ekainaren 15etik Konstituzioaren debatea hasi arte eta bestea, oraindik bukatu ez dena, debate hori hasi zeneetik amaitu arte, hau bi edo hiru aste barru izango da gutti gorabehera.


Teknika eta edukiaren alderdiak aipatuko ditut. Teknikaren aldetik, lehen epean, derrigorrezko ixiltasuna izan zen karakteristika nagusia. Hau konprenitzeko parlamentuaren interbentzio mekanismoa ezagutu behar da. Parlamentuak talde parlamentariak deitzen direnak daude, berak formazio politiko handienek osatzen dituzte. Talde parlamentari bat osatzeko 15 diputatu izan behar dira guttinez, edo bestela, nazionalitateen formazioen kasuan, botuen portzentaia handi bat lortu behar da talde parlamentari bat osatzeko, ez dakit botuen laurden bat ote den, ez nago seguru

honetaz orain. Alderdi politiko baten izaera duen talde parlamentari koherente baten partaide izateko, diputatu asko atera behar da Estatuko nazionalitate guztien mailan, eta hau ez da nire kasua. Talde parlamentari baten partaide ez garenok talde mixtoan gaude. Kongresuaren araudia onhartu arte, hots, urriaren 17arte, "minoría vasco-catalana" deitzen den taldean izan nintzen, bertako interbentzio guztiak Euskadiren aldetik PNVk egiten zituen eta bertan egon nintzen bitartean ez nuen hitzegiterik izan. Gero, talde mixtoan egon naizenean, interbentzioak diputatu gehien zuen alderdiak egiten zituen, hau da, PSPk. Egin ahal izan ditudan interbentzio gehienak, adhesio mailakoak izan dira, edo norbaitek iraindu egiten ninduean, Fragak kasu, orduan hitzegin nezakeen eta ordenu publikoaz eta abarrez ihardun. Amnistiaren legea onhartu egin zenean, hitzegin ahal izateko, terrorismo parlamentaria egin behar izan nuen, niri ez zitzaidan tokatzen, euskal herriaren aldetik PNV hitzegiteko baitzen, orduan esan behar izan nion zen-

bait parlamentariri, Pablo Castellanori kasu, niri hitzik eman ezean, pankarta bat harturik behera jaitsiko nintzela Amnistia Osoa eskatzeko. Halako mehatxu izkutuen bidez, lortu egin dut noizik behinka hitzegitea.

Bigarren epean, Konstituzioaren debatea hasi zenean, hau aldatu egin zen, eta mintzatzeko aukera gehiago izan ditut, zeren debate horretan formazio minoritarien parte hartzea ere onhartzeko baita, eta hauxe da Euskadiko Ezkerraren kasua. Nik enmienda asko presenta nezakeenez gero, defendatu egin ahal izan ditut. Baina egoera hau probisional da, eta Konstituzioaren debatea bukatzen denean, lehengo egoera berberean nago berriz, hitzik ezin eginda.

Interbentzioen mamiari dagokienez, EGINen orai hiru aste edo, argitaratu nuen artikulua batetan, Parlamentuko interbentzioen hiru funtzioak, nire ustez zeintzu diren azaldu egiten nuen. Lehena, masen ahotsa parlamentura eramatea beran kontradikzioak sortzeko. Bigarrena, ezker abertzalearen solidaritatea erakustea, zeren frankis-



moaren garaian hasitako propaganda batek separatista bezala agertarazten baitzuen ezker abertzalea, separatista hitzak duen zentzu burjesaz, hau da, beste herrien mezpreziatzailea eta hauekiko solidaritaterik gabe, propaganda hau ez da erreformaz bukatu eta beharrezkoa zen bere fairsutasuna erakustea. Eta hirugarren funtzioa, erreformaren oinharriak desegitea, Euskal Herriari parlamentutik bere problemen konponbidea ezinetor dai-tekeela erakutsiz.

Helburu hauk betetzen, Konstituzioaren debatea hasi zenetik bakarrik saiatu ahal izan gara, zeren, lehen esan dudan legez, ordurarte ez bainuen hitzegiterik izan. EGINeko artikulua horretan topatu ditudan mugak aipatzen nituen. Lehen helburuari dagokionez, hau da, herriaren bozemaileia izan eta burjes demokrazian kontradikzioak sortzea, lortu egin da zenbait mailatan. Esate baterako, federalismo eta autodeterminazioaren opzioak planteatzean, bortxatu egin genuen PNV bere jarrera baino beste bat erradikalagoa onhartzera. Bigarren helburuaz, Estatuako beste herri eta sektore marginatuekiko solidaritatea erakusteko, espainol komunikabideen eragotpen izugarriarekin egin dugu topo. Euskal prentsaren irakurleek egiaztatu ahal izan dute nola deformatu den ezker abertzalearen irudia estatuko komunikabideetan jagi-jagista amorratu eta separatista bezala agertarazi gaituzte, eta ez separatista independentista zentzua, berez naizena noski, beste herrientzako mezprezuz eta penintsulan gertatzen den guztia- ren kontrako gorrotoz beterik dagoen sektore baten irudia eman dute. Hala ere oso sektore bakan batzutan, zenbait aldizkaritan, "Mundo" edo "Cuadernos para el Diálogo" kasu, estatuko zenbait erakunde iraultzaileen publikazioetan agertu egin da benetan guk erakutsi nahi genuena, hots, sektore independentistek beste indar eta sektore marginatuekiko solidaritatea. Baina Espainiako kaleko gizonak ezker abertzaleaz hartu duen inpresioa, amorratu xenofobo batzuren izan da. Maila honetan ezin ukan dugu gure helburua bete, ez nahi izan ez dugulako, utzi ez digutelako baizik.

Mendebal Europako Ezker iraultzailearen krisialdian dagoen garaian, 68.eko maiatzetik Alderdi Komunisten modeloak ez du jadanik gehiago balio, gazteria eta ezker abertzalearen zenbait sektore zabalentzat, eta haztabulka beronen ordezkio soluzioen bilaketa hasten da, eta bilatze hori irteerarik gabeko bideetako amaitzen da askotan, hau da Brigada Gorrien eta Baader-Mehhof Bandaren kasua. Masa alderdi tradizionalen modelo horrekin

apurtzen duen erantzun-iraultzaile hori gorpuztu den toki bakarra Euskal Herria izan da nire ustez. Baina historian aurrekorik ez duen fenomeno berri bat izanik, heldutasunik gabe eta tentsioz beterik gabiltza askotan. Eta alderdi asko dago euskal indar iraultzaile bat egon beharrean.

Geu ere ikutu egin gaitu Mendebaldeko Europako ezker iraultzaileak pairatzen ari den krisiak. Alderdi modelo bat sortzeko daukagu eta oraindik ez dakigu argi nolakoa izango den.

Epe labur batera begiraturik, pesimista naiz ezker abertzalearen erakundeen egoera ikusirik; baina epe erdi eta luzerako oso optimista nago, zeren herri mobilizazioen errealtate bat baitago hemen eta fenomeno hau berria da Europan. Egia da anitz polemika dagoela, baina mementu honetako tentsio guztiak udaldiko ekaitzen modukoak dira. Gauzak nor bere kontra daudenean ez da atsegingarria, noski. Ez nago pozik nagoen egoeraz eta sortu dudan politikaz. Ez da erraza ideologikoki burukatzea defendatu egin ditudan pertsonen kontra eta pertsona horik beren bizitza emateko prest daudela frogatu dutenean, nik Burgosko prozesuan ikusi nuen ez. Baina pertsona mailan hain desatsegina dena, oso esperientzia aberatsa da politika mailan. Nire ustez ezker abertzalearen zenbait indar, irteerarik gabeko bideetan sar daitekeenean, salhatu egin behar da berau.

Hirugarren helburua ikusteko daukagu oraindik. Nola salatu erreforma? Nire ustez, debate zabal eta serio bat zabaldu behar litzateke herriaren aurrean, herri horren kontzientziatio maila nolakoa den ezagutzeko eta parlamentuan jarraitu behar dugun ala ez jakiteko. Ez dakit Parlamentuko salakuntza ekintzengatik bertan jarraitu behar dugun, basamortuan noizean behinka entzuten den ahotsa izaten, ala parlamental bideak ezertarako balio ez duela eta behin Konstituzioa eginik gure presentzia bertan erreforma legitimatzeko baizik balioko ez duela esateko mementua iritsi ote den, eta horregatik erretiratzen garela. Parlamentua uztea ala ez herriaren kontzientzia mailaren arauerakoa izanen da. Nik honetaz enteratzeko bide informalak baizik ez ditut, zuzendarientzako gutunak, edo batzurekin eta besterekin hitzeginez.

Nire ustez, ezin da abstentzionista edo interbentzionista izan abstraktuki. Ekainaren 15etik, ezker abertzalearen presentzia parlamentuan egon ez balitz, hutsune bat sortuko zatekeen, zeren frankismoaren 40 urteetan zehar botu eskubiderik gabe egon ondoren, ezker abertzalearen sektore batek ere botatuko baitzuen, ez denak

noski, sektorerik erradikaldu eta kontzientziatuenak abstenitu egin ziren, baina parlamentuaren ezgauzatasunaz zegoen kontzientzia, argia zen sektorerik potentziatuenetan bakarrik, baina ez ezker abertzale osoan.

A.—Nola dakusazu bada ekainaren 15 hartan abstentzioaren alde agertu zirenen jarrera?

P. L.—Ekainaren 15ean, abstentziozaleek arrazoia zuten teorian, baina ez praktikan. Arrazoia zuten Parlamentua ez zela Euskal Herriaren erreibindikazioak lortzeko tresna egokia esaten zutenean. Neu ere bat nentorren horretaz. Baina ez zuten arrazoia praktikan, Euskal Herriaren kontzientziapen egoera aztertzean. Gaur egun, agian, posible dateke kontzientziapen hau aurreraturik egotea, nik neuk ez dakit. Konstituzioaren kontrako jarrera gorpuzten denean jakin ahal izango dugu hau.

A.—Konstituzioaren kontrako jarrera hau inportantea izango da zure ustez Euskadin?

P. L.—Ez dut uste botuen gehiengoa Konstituzioaren kontra agertuko denik, zeren partidu handiengan konfidantza duen jendearen portzentaia oso handia baita. Kontutan hartu beharko da PCE eta PSOE baietzaren alde agertuko direla, eta oraindik ez dakigula PNVk zer egingen duen. EZE-TZen portzentaia, Euskadiko Ezkerrak batu zituen botuen oso gainetik egongo da dudarik gabe, baina botu horik erdien ingurukoak izatea ala ez PNVk hartuko duen jarreraren arauerakoa izango da, eta hau oraindik inkognita bat da.



A.—Baina ba dirudi hauen azken jarrera konstituzioaren kontrakoa dela...

P. L.—Bai, eta beraiekin diferentziak izan arren, Konstituzio projekturako batzordean oso jarrera duina izan dutela esan behar da, parlamentuko ezkerreko alderdiena baino duinagoa. Honetaz esan behar nuke nola Madrilko zenbait aldizkari sasiliberal, Cambio 16 batez ere, zenbait puntutan PNV eta geu bat agertzen garenean, elkarrengandik banatzen ahalegintzen direla.

A.—Zer suposatuko luke konstituzioari baietza emateak?

P. L.—Politikoki erreforma eta bere eraketa hau legitimatzea. Erreformak ez du burjes demokrazia suposatzen, frankismo eta burjes demokraziaren arteko hibrido bat baizik. Horregatik kontsentsuzko konstituzio hau frankismo eta burjes demokraziaren nahaste hori eratzeko pauso bat da. Hori onhartzea bere legitimatzea litzateke. Bestalde Euskal Herriaren bere buruaz erabakitzeo eskubideari, autodeterminazio eskubideari muga gorrak ezartzen zaizkio. Eta autodeterminazio eskubiderik gabe ere, autonomia erreal bat lortzeko oztopo larriak daude, autonomiaz autogobernua ulertzen baldin badugu. Projektu konstituzional honetaz, egiaz lortu nahi dena Estatu-ko kapitalismo monopolistaren berrantolaketa berria da, horretarako erregio ekonomikoak sortuz. Deserdirapen administratibo huts bat eta Espainol Estatuaren berrantolatze ekonomiko berri bat da nahi dutena, horretarako erregio autonomoak behar dituzte. Hau guztiau onhartzea litzateke Konstituzioari baietz esatea. Taktika alderditik begiratuta ere, Konstituzio honetatik atera daitezkeen autonomiak kontutan hartuta, konstituzioari baietza ematea miopia hutsa litzateke. Ezetz masibo bat gertatuko balitz, gobernuak asko gehiago eman beharko luke estatutua negoziatzeko orduan. Konstituzioari ezetza emateko bloke zabal bat egingo balitz, askoz posibilitate gehiago legoke geroko. Gainera, nire ustez autodeterminatzeko eskubidea ukatzen duen Konstituzio bat ez onhartzea ez da testimonia- la, nire printzipioekiko koherentzia politikoa baizik, baina honetaz aparte, pragmatismozko arazo bat dago eta, honen arauera, ahal denik eta gehien ateratzen saiatu behar dugu.

A.—Eta zein da erantzunik egokiena ezetza eta abstentzioa?

P. L.—Beno, jarrera bien alde eta kontrako argudioak daude, nik uste. Ni neu ezetzaren alde nago, zeren askoz argiagoa delako eta ezin baita indiferentzia edo gaixotasunezko abstentzioaz nahasi. Gainera, ezetzak, herriaren sektore horrek Espainol Estatu-ko bestelako Konstituzio bat onhartzeko

elkar ikuskika

prest legokeela suposatzen du. Onhartzen ez duguna ez baita Espainol Estatu-ko edozein konstituzio, Konstituzio hori baizik. Abstentzioaz berriz, Konstituzio guztietaz ardurarik ez dagoela uler daiteke. Horregatik ezetzaren alde nago.

A.—Baina abstentzioaren alde daudenean, ezetza ematea erreformaren mekanismo hori nolabait onhartzeko izan daitekeela diote.

P. L.—Bai, arrazoi horik ez dira arbuigarriak, baina esan dudanez, ezetza argiagoa da. Gainera Konstituzioaren aurrean ez dira hiru bloke osatuko, bi baizik. Baietz esango dutena eta berau gaitzetsiz ezetza eman edo abstenitu egingo direnena.

A.—Zergatik tratatu zaitu hain gaizki Estatu-ko prentsak?

P. L.—Gauza bat dago oraindik Madrilan ulertzen ez dena, hots, Euskal Herria herri bat dela, eta hau konprenitzen ez duten artean ez dago zeregin handirik bertan.

Bestalde, Euskal Herriaren arazoaren konponketa minimo bat gerta zedin, beharrezkoa zen frankismoarekiko apurketa oso bat, beharrezkoa zen arrazoi morala ematea frankismoaren kontra bururatu zirenei eta berau sostengatu zutenei kentzea. Hori izango zatekeen hasiera ona gure herriaren destrukzioaren baterako, baina ez da horrela gertatu eta erreformaren finkapenez Euskal Herriaren problema oso konponketa dira. Horregatik, guk horrela gure problemarik ezin konpon daitekeela esatean, deskalkifikatu egin behar gaituzte moralki, esaten dugunaren errealitatea ukatzeko. Nire kontra egin den deskalkifikatze prozesu hori, nire pertsonarekin bat ere zerikusirik ez duena, esaten dudanaren errealitatea ukatzeko egin dute, ezin baitute onhartu Euskal Herriaren problema konponezintasuna beraiek bultzatzen duten erreformaren barnean.

A.—Ezker abertzalea krisialdi larrian dago. Nola dakusazu zeuk bere etorkizuna?

P. L.—EGINen atera nuen artikulua- rengatik bestelakorik pentsa daitezkeen arren, ni oso optimista naiz arazo honetaz. Espainiako Estatu osoa ezker- rra operatiboa den toki bakarra Euskadi da. Euskadin bakarrik aurkitzen dugu erreformaren maniobran integratu ez den herriaren sektore zabal bat. Exgartzelaratuak bihurtu aurretik, Amnistiaren alde eginiko mobilizape- nek frogatu zuten, batzutan, inziati- ba eramateko kapazitatea egoten da

eta orduan, atzetik indar majoritariak eramateko. Parlamentuko autonomien eztabaidan gauza bera ikusi da nola- bait, ezker abertzaleak PNV bere atzetik eraman duenean.

Ezker abertzalea bere osotasunean harturik, oso fenomeno berria da, eta fenomeno horretaz ez da aski teorizatu, horretarako eskemarik ez baitze- goen inon. Mendebaldeko Europako Estatu kapitalista batetako nazio titiki batean, indar iraultzaile bat sortzea errealitate berri bat da. Hemen aurratik ezagutzen ez den abertzaletasun-aren kontzeptio berri bat agetzen da, eta orain arteko teoria marxistaren eskemak —bai Marx eta bai boltxebi- keenak— ez dira aplikagarriak Estatu faxista batetan sortzen den mugimen- du abertzale iraultzaile baterako, eta hauxe izan da gure kasua ETA ageriu- zenetik.


“Euskadiko Ezkerrari” afektatu dion tentsio eta kontraesanen prozesu honek HERRI BATASUNARI ere afektatu dio. Gero, KAS beste zerbait da, koherenteagoa. Baina bereizi egin behar da KASEko indarrek problema konkretuen aurrean hartu dituzten jarrerak eta KASEn programa. Ni guztiz identifikatzen naiz programa horre- kin. Nire ustez oinharritzko puntuak dira Euskadi mailan, burjes demokra- zia-aren hasiera kontsideratzeko. Alter- natibako puntu hauk betetzen ez diren artean frankismoaren jarraipen batetaz mintza gaitzetzeko. Zeharo onhartzeko KASEn alternatiba eta uste dut ezker abertzale osoak onhartzeko duela.

Ekainaren 15eko hauteskunde- en aurrean KASEko indarrek agertu zuten jarreraz, esate baterako, ez nago kon- forme. Beste batzurekin, aldiz, bat nator; udal hauteskundeak legetik kanpo egiteko entseiu horrekin konfor- me nago.

A.—Posibotzat joko zenuke hurrengo udal hauteskundeetan HERRI BATASUNA eta EUSKADI- KO EZKERRAREN arteko aliantza?

P. L.—Ez positiboa bakarrik, guztiz beharrezkoa da hori. Gainera, horrelako aliantza batek Euskal Ezkerra dago- kion tokian ezartzea suposatuko luke. Kontutan hartu behar dugu hautes- kunde jeneralak eta municipalak des- berdinak direla. Jeneraletan arazo ideologikoen pisu handia daukate eta beren gogortasun osoan planteiatzen ohi dira. Hautatuak ateratzen direnak oso gutti dira eta beharrezko izaten da berak alderdietako jendea izatea. Baina askoz zailagoa da arazo ideolo- giko horik hain gogorki agertzea udal

Ezker abertzalearen etorkizunean, balabeharrez sortu beharko da indar iraultzaile handi bat.



hauteskundeetan, hauetarako jende asko behar da eta ez dute zergatik alderdietako jendea izan behar, beren herri edo hauzategien konfidantza duen jendea behar da batez ere. Errore izugarri bat litzateke jeneraletako arazo ideologikoak munizipaletara eramatea eta maila honetan, nire ustez, askoz posibleagoa da aliantzen politika bat.

A.—Gauza jakina da euskal ezkerrean eta ezker abertzalean bloke desberdinak daudela, zein da zure ikuspuntua hauetaz?

P. L.—“Euskadiko Ezkerrak” alde positibo eta negatiboak ditu. Sortu zen mementuko egoerarako, beste ezker abertzalearen sektore batzurena baino jarrera kongruente eta arrazionalago bat zen nire ustez. Bestalde berrikuntza bat suposatzen zuen Euskadiko Ezkerrak, zeren lehenengoz ezker abertzalea zen ezker estatalista indarrak atzetik zeramatzana. Gero Euskadiko Ezkerra irteerarik gabeko bideetan sartu da, EKNren moduko instituzio bat bultzatzen, zeren erakunde honek gestio izaera bat izatean, ezin baita salapen ekintzarik egitea. Niri esan didate kontraesan bat dela, nik “Euskadiko Ezkerra” kritikatzeko EKN-n egitearren, ni parlamentuan nagoen bitartean, nahiz eta nire jarrailzaia dudatan jarri. Hala ere, nik ez dut horretan kontraesanik ikusten, maila horretan behintzat, zeren Madrileko

Parlamentu batetan egoteak organo legislatibo batetan egotea suposatzen baitu. Hau izan daiteke, eta berez ba da, erreformarekin kolaboratze bat, baina bertan salakuntza ekintzak egiteko bakarrik ere egon daiteke. Hauxe da nik Amnistiaz, Konstituzioaz eta Canariasen arazoaz egin dudana, eta Bandresek ere gauza bera egin du beste maila batetan. Baina EKN desberdina da, gobernu erakunde bat baita eta bertan hartzen diren erabakiak bertan dauden guztiei dagozkie. Kontraesan bat da EKNn parte hartzea, zeren alde batetik erreforma salatzen den bitartean, bestalde integratu egiten gara erreformaren ondorio hau onhartzean. Moncloako paktuari ezetz esaten zaio bitartean, onhartu egiten da EKNren Lan Kontseiriritzak atera duen komisiotripartita horren proiektua, eta komisiotripartita horrek klase burrukaren integrazio bat suposatzen du Euskadi mailan eta berauxe da Moncloako Paktuaren helburu bera. Konstituzioan kontsentsuaren kontra gauden bitartean, onhartu egiten da kontsentsuz funtzionatzen duen erakunde bat, EKN-n alderdi majoritarien, hots, PNVk, PSOE, eta UCDk inposatzen duten kontsentsua, eta euskal ezkeraren ahotsa ezin da entzun, erabaki kolegiatuak onhartu behar baitituzte berauek. Nire ustez integratuzko erakunde bat da eta horregatik errore bat bertan parte hartzea.

A.—Duela hiru aste EGINen argitaratu zenuen artikulua batetan, zure burua EIAtik expulstaturik eta independente bezala jotzen zenuela zenioen. Zergatik izan da hau?

P. L.—Pozik sentitzen naiz daramadan bururakaz, hala ere, ez da bat ere atsegingarria ezker abertzaleko lagunen kontra burukatzea, nahiz eta buruka hau ideologi mailakoa bakarrik izan.

Haziletik, EIAk aurreautonomikoa onhartzearen kontra azaldu nintzen. Orditik ez dakit nik parlamentuan egin dudana salatze ekintzak, EIAk onhartzeko zituenentz. Nik EIAren mitinetan parte hartzeak ez zuen arazoa argituko, mitin horietan Konstituzioari buruz hitzegiten zen baina baita ere, E.K.N.-ri buruz, eta EIAk horretan duen jarrera ez da nirea. Beharrezkoa zen nire jarrera herriaren aurrean azaltzea, neuk jokatzeko dudana papera publikoa baita.

Irailan EIAk kaleratu zuen aurreautonomirako alternatibaren, lehentasuna ematen zitzaion masa burrukaren linea bati, linea instituzionalaren aurrean; amnistia batzordeen eta udal boterearen aldeko burrukaren potentziatzeaz hitzegiten zen. Gero, EIAk, eta EIAz mintzo naizenean alderdiko zuzendaritzaren zatirik handienaz ari naiz, beste linea bat hartu zuen.

Nik ba dut oraindik esperantza EIAren hasierako proiektuaz eta nire ustez berriz izan liteke izateko zena. Ez dut hartu jarrera hau inori kalterik egiteko asmoaz, eta hau garbi utzi nahi dudana gauza da, baina arazo honetaz debatea eraman behar zen, bai ezker abertzalearengana eta bai EIA barnera ere, nik ezin izan baitut hau egin basetik apartaturik egon naizelako.

A.—Posible eta beharrezko ikusiko zenuke ezker abertzalearen hiru alderdi iraultzaileen batasuna?

P. L.—Ezker abertzalearen etorkizunean, balabeharrez sortu beharko da euskal indar iraultzaile handi bat. Baina hori ezin izan liteke sigla zopa bat, beharrezkoa izango da horretarako, integratuzko instituzionalaren kontrako masa eta herri burrukaren alternatiba bat sortzea.

Gaur egun ezker abertzalean dauden diferentziak ikusirik, alde batetik KASEko sektoreen eta bestetik EIA, EKIAren artean daudenak, halako sigla zopa bat egitea errore handi bat litzateke. Baina epe labur batean batasun hori posible izango ez bada ere, epe luzeagorako, lehen esan dudana legez, optimista naiz.



PETRONOR

Refinería de Petróleos del Norte, S. A.

OHIZKO ETA BERARIZKO BILTZAR OROKORRAK

NEMESIO FERNANDEZ-CUESTA JAUNAREN LEHENDAKARITZAPEAN EKAINAREN 21 GARRENEAN BILBON IZANAK

LEHENDAKARI JAUNAREN HITZALDITIK

Hamar urte dira PETRONOR jaio zela. Baltzu batentzat urtez aldi laburra, noski, baina, hala ere, atzera begiratu eta apaltasun-itxurak alde batera utzi eta 1968garreneko irailaren 14an Bizkaiko Iraztegiari bide eman zitzaionez gerozko enpresa-mailako benetako eginkortasun bikaina egiaztatzeko nahiko.

Bai barrukoentzat eta bai kanporuntz eskaini dugun kontu-garbitasuna pozbide izan behar dugula uste izaten gurekin bat egizue; bide hortan ahalik eta zorrotzen izan nahi genuke, finantza-gaileango arduratze-lan hestu bat noraezekotzat jotzen bait-dugu erabaki egokiak hartu eta geure burei ezarri dizkiegun helburuetaruntz aurrera egiteko.

PETRONOR, bere ekonomiazko jokabideak ahalik eta gehien hobetzeaz gainera, bere diru-oinarrien egitura sakonki birraztertzeaz ere benetan arduratu da. Eta, hori, agian oso zailak izango diren datoen urteek dakarkiguketan beharrei behar bezala erantzun ahal izateko. Izan ere, datoen urte hoietan aurrera-naiez bai, baina gauzak direneantxe ikusita antolatutako beharko ditugu gure enpresa-egitamuak.

Ba dugu utzi ezinezko erantzukizun bat gure hazkuntza-bidearen guztizko birregiturtzearekin batera: Goren-mailako teknikaren bidez balio-gehitze haundi bat bereganatu dezaketen industrietan oinarritutako garatsun-maila berri batek eskatzen digunari erantzutea.

Industrien giza-zerbitzurako gogoaren bidez baino ezin ditekete, gerorako, enpresen eta bere inguruaren arteko bateratasun egoki bat gertatu. Eta hori horrela dela zinez sinistek eta horrekiko atxikimenduak eragiten dio PETRONOR eri Euskal Herriarenarekin hain ertsiki lotuta dagoen

bere hazkuntza petrokimikaren lehen-mailako bideetatik lortzen ahalegintzea.

Honako hauek ematen diote petrokimikari ekonomia eta gizarte-mailetango bere garrantzi nabarria: Noraezeko zaigunez, industria-sail askori lotuta egoteak, ugalketa-bide izateak, eta toki batez, egitura batzuez eta irespide batez modu eginkor baten baliatu ahal izateak. PETRONORek bere gain hartzen du enpresari-egitekoz jabetuta dagoela erakutsiz lan eta erosotasun-iturriak sortarazi beharrik aurrean jartzen dion egitekoari zentzuz erantzutea.

PETRONORen jaiotzaren hamar urteak betetzen direneko 1978garren hontan, Iraztegiaren ekoizkortasuna gehitzeaz gainera, Euskal Herriaren, Espaniaren eta gure baltzukideen onerako gure asmo berriak mamitzeko beharrezko diren baldintzak gure artean beteko al dira, guk itzaropenez eta bihotz-bihotzez nahi dugunez.

ARGIPIDEAK LABURKI (1977-XII-31)

XEHETASUNIK JAKINGARRIENAK

Orain irazi genitzakeenak	Urteko 8 MM Tm.
Haunditu ondoren egingo direnak	Urteko 12 MM Tm.
Pilatzeko gaitasuna:	
— lehengaia	1.225.000 m. ³
— egindakoak	886.400 m. ³
Itsasontziak: Lau petroliontziguren	1.107.000 TPM
Kaia:	
— zerbitzu-ordeak	325.000 m. ²
— sartu ditezken itsasontziak	500.000 TPM

EGINDAKOAK

Erabilitako lehengaiak	6,1 MM Tm.
Saldutakoak	5,8 MM Tm.

GIZA-BALIAKIZUNAK

Lanean dihartutenak (bertako eta aldibaterako)	604 lagun
Langile bakoitzeko saldutakoak	84 MM peseta

DIRUZKO XEHETASUNAK (Miloeka pesetetan)

Iraztegiaren salmentak	50.884
— Erresuma barruan	47.946
— Atzerrian	2.938
Haien ondorengo "cash-Flow"	2.770
— Irabazia	772
— Andeatze-ordaina	1.998
Banaturakoa (soildu aurretikako % 8,38) ..	352
Diruezarketa berriak	4.468

DIRU-GARBITASUNAREKIKO ARGIPIDEAK

Mugiezinekoak eta pilatutakoak	49.528
Baltzu-dirutza	4.200
Erantzutekoa	6.232
Andeatze-ordaina	9.907
Epe luzerako zorra	15.813

BERARIZKO BILTZAR OROKORRAREN ERABAKIAK

Baltzuak bere dituen ogasunei indar emateko, PETRONORen Biltzar Orokorrak, berarizko bilkuran, honako hau erabaki du:
Baltzu-dirutza 9.000 miloe peseta gehitzea,
4.200 miloetik 13.200 miloetaraino beraz.

Gehitze honen ehuneko 60a, Berdintze-kontukoa Baltzu-dirutzaren kontura igaroaraziz egingo da, eta gainontzeko ehuneko 40a, berriz, baltzukideek 3.600 mila peseta ekarriaz.

VIDELAK 3, DEMOKRAZIAK 1



Ez da titulu demagogiko bat. Hasieratik iragarrita zegoen bezalaxe, munduko futbol txapelketa nazio antolatzaileak irabazi du. Hori lortzeko, behar ziren neurriak hartu dira. Lehenengo partiduan, Argentina galtzen zihoalarik, Hungriari bi jokalarri espulstatu zizkion arbitroak. Brasilek baino gol gehiago sartu behar zituen finalerako klasifikatzeko, eta sei sartu zizkion Perúri. Eta susmoa dugu, beharrezko izan balitz zortzi sartuko zizkiola. Finala Holandari irabaztea derrigorrezkoa zen, eta Gonella, arbitro italiarra, lotsarik eta disimulorik gabea, izan du laguntzaile paregabea. Kempes baino hobea. Honela ezik, nola bete iragarpenak?

Videlarentzat eta juntako beste militarrentzat operazio futbolistiko honek izan duen garrantziaz jabetzeko, presidentea, Argentinak jokatu dituen partidu guztietara joan dela kontu egin.

NAZIONALISMOAREN EROMENA

Argentinarek ez diegu beren poza kendu nahi. Eskubide osoa dute beren futbolariekin identifikatzeko, eta festa egiteko. Irabazi egin dute gainera. Eta alditxo batez beren problema ekonomiko, politiko eta sozialen garrastasuna gozatu nahi badute, hor konpon! Baina aski xelebræa iruditzen zaigu herri baten nortasuna edozein kirolarirekin berdintzea, herri ohorea baloia- ren atzetik korrika dabilen mutil taldearekin identifikatzea. Gratulotza eta merkea deritzogu estadiotako eta kanpoko jendearen eromen abertzaleari. Nazionalismoaren deabru txobinisten durrata zoroa dakusagu hor. Baina alferrik urratuko genituzke gure soinekoak noski. Dantza zoro berdina baita denei gustatzen zaiena. Berdin funtzionatzen dute Italiako tiffosoak eta Eskoziakoak, Herri sozialistakoak eta

kapitalistakoak, Betis-en eta Athletic-en forofoak.

Baina zihur gaude pozalditxo honen ondotik, herriak ez dituela ahaztuko eguneroko gorabehera larriak.

HERRIAK AHAZTU EZINGO DUENA

Herria ez da inozoa. Diktadura azpian dagoena ere ez. Eta Argentinako herriak ere ba daki munduko futbol lehiaketa ez duela Videla militarrek irabazi.

Herriak ezingo du ahaztu 15.000 pertsona desagertu direla. 4.000 (batzuk bi bider gehiago direla diote), hilak. 10.000, preso politikoak. Eta hauk denak ez direla gerrila egin duten montoneroak. Horien artean egoteko aski dela haiekiko harremanen bat edukitzea, kidetasun ideologikorik izan ez arren. Haien ahaideak, adiskideak, irakasleak, apaizak, erlijiosak, eta erdiko klaseko beste asko izan dira errepresioaren gogorra ezagutu dutenak. Ezingo da errepresio hori ahaztu gainera, zigortu gehienak erdiko klasekoak izanik, errepresioaren berriak aldarrikatzeko klase honek bide gehia-

Malkoak isuri omen ditu Videlak Argentinako kapitanari garaipen kopa irabazteko ematerakoan. Pozezkoak garaipen ahal ziren. Urteko tanto politikorik handiena irabazi baitu munduan eta herriaren aurrean. Inaugurapenean, "ongietorriak bake, askatasun eta justizi lurralde honetara" hotsegin zuten. Bukatzerakoan, "kiroletan halako marka egin dugun bezala egin irabazteko nazioko beste arazotan", irabazteko du.

Guri bost axola zitzaigun batek irabazteko besteak irabaztea. "Esencias hispanicas", "madre patria", "naciones hermanas" eta gainerako letaniaren berri jakin arren. Gainera ez baitzaigu erandik erabat ahaztu, espainolak Holandara ere joan zirela beren "erandiki" zabaltzera, jipola jipoi gaitzen hartuz eta Ameriketatik lapurtutako urrea alferrikalduz. Luis de la Fuente, Alejandro Farnesio, Duque de Alba eta tertziokoak handik irabazteko dira tiroka edo espatzoka.

Ez dugu ezer Argentinako jokalarien berri. Baina Holandak galtzea Videlak irabazteko honen politikak irabazteko den irabazteko nahiago genuen Holandako garaipenaren garaipena.

go duelako eta fatalismo guttiago behekoak baino. Ohartzekoa da monotoneroak, azken orduan justizialismora etorri eta Peron Espainiatik eraman arazi, eta gero Peronek berak madarikatuko gazte idealista gehienak, erdiko klasekoak zirela.

Herriak ezin ditu ahaztu poliziaren errepresio ikaragarria, entzutearekin bakarrik dardaraz eta nazkaz jartzeko moduko torturak, polizia paraleloaren bahiketak, hilketak, lapurretak, emakume bortxaketak...

Errepresioaren izpirutua Buenos Aires-eko gobernadoreak esandako honek adierazten du ederki: *"Mataremos a todos los subversivos, luego a sus colaboradores, después a los simpatizantes, después a los tibios y, al fin, mataremos a los indiferentes"*.

Herriak ezin du ahaztu ekonomi egoera hestua. Martínez de la Hoz, Lurralde jabe handienetako bat den, eta dozena erdi-entrepresa multinazionalen administrazio kontseilutan parte hartzen duen eta Amerikako eta Europako bankaririk indartsuenen adiskide pertsonala den finantza ministrari honek hartutako neurri ekonomikoak ultraliberalismorik basatienari jarraitzen diotela. Ez du ahaztu diruaren erosteko ahalmena urrituz doala.

Langileriak ezin du ahaztu, kanpoko produktuari ateak erabat zabaldu zaizkionean, empresa tikiak eta erdizka-koak hankaz gora doazela. Sindikatuek ez daukatela inolako askatasunik. Ez dagoela greba eskubiderik. Ba direla lantokian bertan afuilatutako grebalar-riak. Alokairuak oso behean daudela:

hileko 4.500 eta 9.000 pezeta artean. Eta kontrolik gabeko ekonomia sistema honegatik eta langilea murriztu saltzen delako, empresa multinazionalak pozaren pozez beren hatzarrak Argentinara luzatzen ari direla. Korrika datozela Kodak, Bendix, Texaco, Instrument, Shell, Exxon, Morgan Guaranty Trust eta beste dozenak errepresio-entrepresa.

Eta herriak ezin du ahaztu nekazkeria aterako dela egoera honetatik. Ezker muturrekoak fisikoki desegin dituztela Justizialismo peronista, bere demagogia eta anbiguetate guztiarekin eskuak lotuta dagoela. Kontserbadoreek ez daukatela zer eginik. Komunistek, Moskuren interesetara makurtzeagatik, Videlaren errejimeneri beren "apoyo crítico" delako emanen diote.



después a los simpatizantes, después a los tibios, y, al fin mataremos a los indiferentes.

la. Eta hori Videlaren juntak kupidarik gabeko antikomunismoa darabilelarik, Argentinako PC-k errepresio latza hartu duelarik eta 75 bat militante "desagertuen" artean dauzkalarik. Giza eskubideen zapalketa eta militante batzuren errepresioa ez da ezer non-bait Sobiet Batasuna Argentinaren gaurko bezerorik onena izatearen ondoan. Horregatik noski URSS eta Kuba, Argentinako errejimena ONUk kondenatzeko egin diren eginahal guztien aurka agertu dira. PCA-ko Komite Zentraleko Roberto Vallarinok esan duenez, "bestela gure herria isolatu egingo litzateke, eta klan pinotxetista indartu". Zernahitarako arrazoirik ez dela falta bistan da. Nahiko bitxia da komunistak ere faxismoarekin harreman gozoak euki ditzaketela, eta anti-faxismoa utz dezaketela.

Zihur asko hauxe zen Argentinako herriak futbol mozkorren lozorroan pixka bat ahaztu nahi zuena.

MUNDIALEN BOIKOTA

Ezaguna da: azken urtebete honetan talde asko sortu da, Argentinako diktaduraren kontrako protesta bezala, mundialak beste tokiren batetan jokatzeko eta jokalarien aldetik boikota exigitu edo eskatzen zuena.

Boikota kanpaina horrek zenbaterainoko eragina izan duen? Dakigunez da jokalaririk gelditu joateke. Eta partidu denak bake santuan jokatu dira. Arrazoiak? Politika eta kirolak ez dira nahasi behar. Batek boikota egin arren beste jokalaria batek jokatu luke

haren orde. Boikotarekin ez da errejimena eroriko. Ez du merezi preparazioetan erretako hainbeste kimen eta urte ezertan agertu gabe uztea. Zergatik politikoez ezabatu eta konpondu ezin dutena kirolariek konpondu behar dute? Politika mailako borroka ez dauka kirol mailan dagoen batasuna apurtu beharrik. Argentinara ez joatekotan gainera, beste toki gehienetara joaterik ere ez litzateke egongo. Hauk dira jokalaria frantsesek agertutako arrazoiak batzuek.

Hala ere boikota martxan jarri zutenek ez dute uste alferrikakoa izan denik. Marek Halter-ek, Frantziar boikota hasi zuenak adibidez. Hori ustez, kanpaina horrek berea eman du Argentinako diktaduraz jabetzea. Joko eta ikuskari eder horien azpitik dagoen

gogora ez ahaztea. Kontzientzia txarra ez dagoela. Diktadoreek ere, itxura gor-
 tzean nahi duten arauera behintzat, ez
 erabakite edozein gauza egiterik.
 Boikota giza eskubideen printzipio
 moralaren defentsa bezala onhartu
 dutenen artean, izan da borroka hori
 edozein errejimien politikori, eskubikori
 edo ezkerrekerori aplikatu nahi dionik.
 Argentinako mundialen kontrako boi-
 kotatzean, 1980.eko Moskuko olinpiadaren
 boikotarekin lotu nahi dute. Ezkerraren
 egindako hilketak eta giza
 eskubideen zapalketak, proletargo
 borrokan izenean egindako justizia direla
 eta, ez dago isiltzerik edo minimizatze-
 rik. Argi dago Moskuko olinpiada boi-
 kotatu nahi ez duen Argentinako mun-
 dialen boikotatzaileak, ez duela boiko-
 ta printzipio moralaren izenean egiten,
 interes politikoa batzuzenean baizik.
 Ezin da printzipio moralik kolore des-
 berdinetako ideologiei prezio desber-
 dinetan saldu. Denentzako berdin
 balio du. Edozein koloreko eta erreji-
 meneko gizonak berdin balio badu
 behintzat.

ERREJIMENAREN IRUDI INTERNAZIONALA

Argentinako mundial hauetan erre-
 jimenaren irudi publikoa hobetu egin
 da agian. Presidente buru, alai, pozik,
 ebertzale eta beste edozein nazio
 bezalako ordenuan bizi den herriaren
 irudia zabaldu dute telebistako kame-
 rek lau haizetara.

Ez da Munich-en palestindarrek
 egindako odol isurketarik gertatu. Mili-
 tarrek hartutako neurriengatik eta
 montoneroek hala nahi izan dutelako.
 Partidua hasi baino zortzi ordu
 lehenago futbol zelaia eta honen ingu-
 ruko hauzoa "zona de seguridad"
 biltzurtzen zen eta militarren eskutara
 pasa.

Mario Firmenich-ek, bere aldetik,
 alderdi montoneroaren lehen idazkari
 eta harmada montoneroaren koman-
 dante buru denak, mundialeen hasie-
 ran deklaratu zuen, been asmoa "erre-
 sistentzia harmatua gordetzea zela".
 Eta bere militanteei hauxe agindu zien:
 "formalki galerazita dago estadiotatik
 600 metrotara edozein ekintza modu
 egitea; galerazita daude Argentinako
 edo atzerriko kazetarien integritate
 fisikoari, edo jokalarienri edo ekipoen
 ordezkarienari kalte egin diezaiaketen
 ekintzak". Eta agindu hau bete egin
 da. Ez da askok uste eta espero zuen
 tragediarik gertatu.

Hala ere hotel asko, horietatik zen-
 bait futbol lehiaketa zela eta jasota-
 koak, erdi hutsik gelditu da. Turismorik
 ezin dute bereganatu ahal izan. Nahi
 zuten neurrian behintzat.

Zenbateraino lortu du errejimena
 bere irudi faxista izkutatu eta estalt-
 zea? Geure larrutik dakigu errepre-
 sioaren haririk gogorrenak ez direla
 kaleetako metrailetak eta kaminoeta-

ko arantza eta kontrolak. Begiz ikusten
 ez den errepresio difuminatua, bistara
 ageri ez dena, zaratarik gabekoa, izpi-
 rituak ere beldurrez lotzen dituena,
 isiltasuna eta ordenua bera protesta
 bide bihurtzen duena dela okerrera.
 Sare faxista horren harietaz jabetzea
 ez da samurra. Ez da bat batean ikus-
 ten. Zenbat aldiz, hortik zehar, Espai-
 nian eta beste herrietan, Euskal
 Herrian zegoen errepresioa, udaran
 hemendik pasatako turistei demostra-
 tu ezinik ibili gara! Ez da harritzekoa

mundialetara joandako turistak erreji-
 men faxistaren aztarnarik ikusi abe
 etxeratzen badira.

Irudi ederra edo itsusia, dirua ez da
 hortaz kezkatzen. Dirua nondik sortu-
 ko, hara joan ohi da. Entrepresa kapi-
 talistek ikasi dute hango bidea. Eta
 Sobiet Batasunak ez du Argentinako
 gari faxista erosteko eskrupulurik.
 Errepresioaren kontrako kanpaina
 internazionalak eragin apala izan ohi
 dute. Hala izan da mundialei egin nahi
 izan zaien boikotarekin.



Soviet Batasunak ez du gari faxista erosteko eskrupulurik.

Baina boikotaren, edozein eta edo-
 zeini egin dakiokkeen boikotaren azpi-
 tik, logika integristaren arriskua daku-
 sat. Futbolariak Argentina 78 boikota-
 tu behar bazuen, eta atletak Mosku 80
 boikotatu behar badu, zergatik turis-
 tek, eta politikoez, eta komertzianteez,
 eta artistek, eta baletistek eta musika-
 lariez eta intelektualek ez dute iadanik
 bereaie dagokien alorrean beste hain-
 beste egiten? Zergatik boikota kirola-
 rieie bakarrik exigitu? Zergatik erreji-
 men kondenatu horietara joan, eta
 zergatik hangoak gure artean onhartu?

Kapitalistek eta sozialistek, demo-
 kraziek eta diktadorek elkar horrela
 boikotatu behar badute, gizateriaren
 zatiketa areagotu egingo genuke. Hesi
 tartean beharko genuke bizi. Zergatik
 elkarrekin ONU n eseri? Logika horre-
 kin ez legoke ONUrik, ghettoa eta

gerra orokorra besterik.

Boikota, politikoa bezala harturik,
 hipokresia da. Nazka ematen du.
 Borroka morala bezala harturik, ditzri-
 ragarra dirudi, testigutza orok bezala.
 Baina logika integristaren punta,
 gurutzada izpiritua aurkitzen dugu hor.
 Zorionez, gizona ez da hain logikoa
 izan. Logika hori ez du azken muturre-
 raino eraman. Etsaiarekin trataturik egi-
 ten hasteko adina kidetasun aurkitu
 du. Gizateriaren batasuna ere printzi-
 pio morala bihurtu behar. Eta prin-
 tzipio nagusia. Batzen gaituen gauza
 gehiago dago, sakabantzen gaituena
 baino.

Guzti honegatik boikotaren plan-
 teiamendua eztabaidagarri gertatzen
 da. Argentina 78koan ikusi denez.

Manolo Pagola

Anaitasuna oso gaizki dabil
ekonomiaren aldetik. Hau dela
eta Uztailean ale bat eta gainera
oso atzeraturik atera da kalera.

Uztailean, obi den legez bes-
te ale bakar bat ateratzeko ahale-
gin guztiak eginen ditugu.

Bestaldetik aldaketak egon di-
ra Anaitasunan barne. Gestio osoa
langileon eskuetan geratu da. Hau
dela eta independenteagoak gara.

Anaitasunako helburuak ez
dira horregatik aldatu.

Euskal prentsa herrikoiki bat lortzea.
Prentsa egikorra eta objektiboa.
Benetako kazetaritza egitea.

Alderdi politiko guztietatik libre
izatea.

Gure Herriaren alfabetatze maila
kontuan hartu eta euskaldun be-
rrirentzako prentsa ere izatea.

Zu ere honen alde bazaude
LAGUN EZAZU ANAITASUNA.
BIDE ASKO DUZU
LAGUNTZEKO.

HARPIDEDUN BERRIAK
KANPAINAK, HITZALDIAK

DIRU LAGUNTZA. ZURE ESKU-
TAN EGON DAITEKE.

Tfnoa: 4335807/...9

Bankuko kontua: B.B.4970 00 137

anait

el
infor.
euskara.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeru
ARGIA

anaitasu

GA
EUS
PRE

EU
RA
KAL
NTSA



Zergatik ez Euskaraz erosi?

Euskadiko dendetan, produktunk gehienak, erdaraz eskaintzen dizkigute

Bitxiak, ingeles, frantsez, italiarra edo alemanez, frankotan. Etiketak, argibideak, oharrak, publizitatea...

Guztia, hizkuntza arrotzez.

Zergatik bereizkera hau?

Merkatal alor guztietan euskara sartu eta erabilera zitea, gure esku dago. Nola?

Geure hizkuntza darabilbiten saltokietan eta euskarazko publizitatez eskaintzen dizkiguten gauzak erosi. Gure hizkuntzan etiketatunk dauden produktuak eskatu.

Euskara indarberritzearen alde
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE TYPREZKIT

EUSKADI KUTXA



TXINAKERIAK

Zer bilakatu zaizkigu garai haretako komunikatuak non Txina eta Viet-Nam arteko laguntza eternala aipatzen baitzen, non bata eta bestea gorpuzta berberaren hortzak eta aginak baitziren?

Gaur egun aldiz, Txinatarrei Viet-Nam, iraultzaren herria, burjes ttikien erresuma eta basakeria guztien tokia bilakatu zaie. Harrigarriena bitartean zera da: Estatu Batuak, OTAN, eta Europako agintariak, Txina sozialistaren aliatu naturalak bihurtzea.

Txina hegemoniaren bila

Egunetan aurrera eta Txina eta Viet-Nam arteko nahasketak konplikatua agertzen zaizkigu. Azken 15 urte hauetan Txina eta Viet-Nam oso ongi konpondu dira elkarrekin. Bata bestearen helburuan inperialismoaren kontra ekitea izan dute arrazoi nagusia. Bai Sobietar Batasunak bai Txinak, zuzenki, hau da, hitzez eta ekintzez, lagundu zioten Hanoi bere askatasunaren alde. Baina egun haiek ba dirudi ahazturik daudela. Asuntu honetan gero eta nabariago interes "ezkutuagoak" agertzen ari zaizkigu. Nazioarteko mailan Txinak desarrolatzen duen politikari, zentzua, behintzat zentzu iraultzaile bat, falta egiten zaio. Iraultzailea den ala ez ez gara modu garbiz esaten ausartuko. Ba liteke iraultzailea izatea baina horretarako fedea benetan falta egiten zaigu. Txinaren politikari zentzu logiko bat topatzen zaio berehala, zentzu hegemonikoa batez ere. Esan dezagun garbi, Sobietar Batasunari eta Estatu Batuei logika berbera topatzen diegula baina interesik aparte, globalki, salbuespenik eta guzti, batak kapitalismoari kalte dakarkio, besteak alderantziz sozialismoari. Txinako politika berriak ez du globalki sozialismoaren interesekin ezer ikustekorik.

Sofisma baten alde onak eta txarrak

Iraultza kulturala egin ondoren, Mao Tse Tung-en pentsamenduarekin gustu guztietarako interpretazioak egin dira. Bazterketak eta garbiketak ugaritzen ari dira orain Txinan zehar. Goardia gorria dela, Maoren emaztea, honen segitzaileak eta iraultzailea zerguztia, baztertu egin da. Ideologi arlo bat baztertu da Txinan eta berau Nixonen bisitarekin batera hasten da. Iraultzaren zentzu soziologikoa gelditzearekin proletal internazionalismoarena bazterturik geratu da. Txinako jabeak interes nazionalak defendatzen ari dira. Egoera hau ez da historian oso orijinala. Sobietarrei berdin pasatu zitzaizen Troskirekin. Bide ezberdinetik haitzulo berberara etorri zaigu Txina. Egoera ezberdinetan antzeko politikak aplikatzen ez da ondorio berdinetara heltzen. Mundua bipolarizatu egin denez geroztik, Sobietar Batasunerako ona zena kapitalismoarentzat txarra zen, Sobietar Batasuneko interes nazionalak defendatzeak kapitalismoari kalte egiten zion. Sofisma teoriko batek, bipolarizazioaren legea dela eta, errealitatea bihurtzen zaigu. Sobietar Batasunak, nahiz eta praktikoki beste "interes" ezberdinen alde egon, objektiboki



Maoren segitzaileak eta iraultzailea zen guztia baztertu egin da.

mesedea eta laguntza ekari dio Sozialismoari gehienetan. Ez beti. Txinak alderantziz ezin du berbera egin. Bipolarizazio hau moztean bere interes nazional hutsak bakarrik defendatu ditzake.

Txinako politika nazionala aurreratzeko, munduko zona bat propietzat hartu behar du. Horretarako aurretik erabiltzen beste bi indarrekin konponketan sartu behar. Txinako Sobietar Batasunaren aldetik etorri zaio. Txina munduko zona batetan hegemonikoa izan dadin Sobietar Batasunari kendu behar zaio hegemonia konturatu egin behar. Kapitalismoaren kontra aurrez jartzeak ez lioke aurrerantzi asko ekarriko. Txinaren indarra ez da munduan behar nagusitu. Bere indarra, sendoa, urteetan gorantz eraman baina, neurtua du. Ekonomian aurreratu eta munduan pisu handi bat izan nahi baldin badu Asiako subkontinentean nagusitu behar du bere influentzia, hegemonia bihurtuz. Baina noren kaltetan?

Sozialismoaren izenean

Sozialismorako munduko estrategia oso batek bi buru ezberdin eduki behar zituela ari ziren aspalditik txinatarrak errepikatzen. Oreka bat egon dadin beharrezkoa zen Txinatarraren ustez bi buru egotea. Oreka hau egotea bidezkoa iruditu zaio sozialismoaren hainbat teorizatzailei. Gatazka ideologiko bat egon dela ba dirudi baina gatazkan sartu dena ez da sozialismoari buruzko teoria berezia. Interes nazional bereziak sartu dira hemen burrukan sozialismoaren izenean... eta beronen izenean, Txina Sobietar Batasunaren etsai amorratua bilakatu da. Txinako agintarientzat



*Denounce indignantly the crimes of the unrepentant capitalist-roader. Cantonen aireportuan. 1976.
Zer bilakatu zaizkigu garai baretako kanpainak?*

Imperialista fanatikoak ez dira jadanik amerikanoak, imperialismo kaltegarriena Sobietar Batasunatik dator. Txinako propagandari begira sobietarrak gerrazale eta traidore hutsak dira. Txinak dioskunez sozialismoaren istorio faltsuarekin Sobietar Batasunak mundu guztia bere hatzapean suntsitu nahi du. Horregatik bereziki, mundu gizagaixo hau askatzeko asmoarekin hasi dira txinatarrak sozial inperialismo honi bere indar guztiekin burruka ematen. Burruka honetan agian erresuma atzerakoiak laguntzea, bai Asian bai Afrikan izan daiteke txinatarraren taktika superiraultzailea. Txinako teoriak, hain sinpleak direnak, norberaren burua dudamudatan jartzen dute.

Viet-Nam-eko kasuan esaterako. Gerra amaitu ondoren, Txinak subkontinenteko "status quo" gorde nahi zuen, hau da, denen laguntzarekin Viet-Nam produktibitatean sartzea baina beraz egin beharrean Viet-Nam-eko estrategia politiko militar batetan sartu du bere burua, Txinako interesak kaltean ipiniz. Beraz, garbi esan bedi, Txinako estrategiak Txina hegemonikoa bilatu nahi du

subkontinentean. Horretarako, Japoniarekin eta Estatu Batuekin paktu berri bat izeripetu nahi du laster. Paktu honen arauera, hiru potentzi hauek potentzi atzerritarrek Asiako hegemonia eskuratzeko egin dezaketen entseiuaren kontra burrukatzeko konpromezua hartuko dute. Indar atzerritar horiek, Sobietar Batasunekoak dira, jakina, paktu horretan aparte geratzen baita. Estatu Batuek, paktu honen arauera, parte har dezaketeedozein burrukan "bertoko herrien" interesak defendatzeko. Txinak ez du begiralearena egingo, parte hartu behar du ere, eta parte hartzean Estatu Batuekin batera egingo du. Txinak Viet-Nam irabaz dezakeen bitartean Estatu Batuek Tailandia ez dute galduko. Txinak kapitalismoari egiten dion mesedea jadanik bukatutzat har daiteke eta hau dela eta, ez gintuzke asko harrutuko hemendik epe laburretara Txina Viet-Nam-eko eskuak sartzen ikusteak. Kapitalismoaren aldetik ez da inolako oztoporik izango. Europak, OTANek eta Estatu Batuek postura egin dute Txinaren alde. Paperezko tigreak ongi ikasi du Txinaren zotzak erabiltzen.

MARZINGER Z. EUSKAL UMORERIK POLITIKOENA

Aldi hartan, batzuren bakea berriro lur azal osoan nagusituz zihoala ikusi zuenean, egokia eta bidezkoa zela lurreratzea iruditu zitzaion Marzinger Zetari. Honetarako bere 600 deskapotablea orbita dekadente batetan sartu eta lurreratzeko asmoz, kutxa baten barruan gordetzen zuen zentralismo demokratikoren hautsak aplikatu zizkion bere kotxeko motorrari. *A, paregabeko zoriontasun hau abandonatu beharra! Hemen espazioan lurral biraka, beti aurrera, beti higika eta beti marra berdinatik iragaten! En fin!* Hasperen bat botatuz, orbita batetan ez zegoela ez aurre ez atzerik, ez zegoela geldiarazterik pentsatu zuen. Oso superdialektikoa zen, superbultzailea, superrestrukturatuta zegoen. *Dkt. Inpernu lasai egon bedi. Bere dekretu eta konstituzioak ez dit min handirik ekarriko, nire zuzentasunak, nire baztertasunak ekarri didan baino gehiago behintzat.* Zetaren pentsamendu teorikoak, hori eta ez besterik, zen Marzingentzat teorizatzea, Aita gomaguztiduna aspertu zuen. Honela zioen Aitak bere buruari: *Begira zer egin duten tonta horiek! Heredentzia guztia zapuztu eta banatzen ari dira. Norbera bere burua kontenplatzearen etsaien barrabilek izorratzen ari gaituzte. Popatik hartzen dugu, bat bakarrik ipini beharrean 7 edo 8, denetatik hartzeko sortu ditugu. Asunto honetan ez dago aurrerazterik. Ez, ez, gauzak aurreratzeko potroak eduki behar ditut. Dkt. Inpernuren hizkuntza berbera erabili behar da. Plastikoz egin behar da ez baitu horrek besterik ulertzen. Berdeak eta grisak gomatuko ditut berehala.* Eta bere zuzentasunean unibertso haren bazterrak kixkaltzen hasi ziren. Lurrean zehar zegoen berdetasun eta gristasunetako asko kaka geratu zen. Orduan Dkt. Inpernu hainbeste kaka eta beronek zerion usaina ezin gehiago jasan, lagunaren artean bee zihurtasuna erakutsi nahiean, ideia ilun bat etorri zitzaion burura: *Kaka moduko geratu da nire berde eta gristasun hau, kolorea aldatzean eta dena marroinduz ezta hauek daramaten usaina nabaritutiko.*


Horrela eginez lehen zegoen eztabaida korapilotu egin zen. Bitartean Marzinger Zeta bere kontura, Coca Colak Alfa Zentauron antolatutako hizketaldi batetan mintzo zelarik marka horren garrantzitasuna erakutsi eta ez irakatsi, egiten zuen.

Begira hona guztiok! Begira zein miragarri den botila hau! Hemen barrukoak ez du garrantzi handirik ez baitu mozkortzen. Hemen kontenidoa ez du ezertarako balio, zeren esan baitaiteke Amerikatik zuzen datorkigukeela. Beirazko botila hau aldiz, gure berdegunetan eginda dago. Mila langile parte hartu du botilari beharrezkoa den gogortasuna eta gardentasuna emateko, beraz nahitaez iraultzailea izan behar du.

Soro batetan laiatzen ari ziren estudiante batzuk fermuki txalotu zituzten Zetaren hitzok.

Baina eurokomunisten ordezkari batzuk botilaren gogortasuna ikertu nahi zuten. Horretarako hango batek zati bat marruskatu eta berehala mihiz moztu zuen zauritik odola zeriola.

Egia esateko, gehitzen zuen Zetak, mendebaldean kokatzen zarenok gure hitzen zentzua erraz konprenitu duzue, ez hainbeste ekialdeko jende horrek. Ekialdeko jende hau oso abandonaturik daukat, bidezko izanzen litzateke unibertso hori ez deskuidatzea, kapaz dira gero, kaskoa trukean saltzeko.



Eta gehiagorik gabe, bere 600 deskapotablean ekialderantz abiatu zen zarata superriraultzaile batetan.

Horra heldu baino lehen, izar baten dirdir larriak ikusi zituen, planeta eurokomunista amerikar Arrano konstelazioak indar magnetiko eta metafisikoren bidez harrapatzen duen tokian.

Zer izanen ote da hori? pentsatu zuen, *planeta edo izarra? Badaezpada, izarreratzeko motorrak prest edukiko ditut.* Baina izarreratzean argi guztiak itzali ziren. Dkt. Inpernuren kamuflajea pentsatu zuen. Eta oihan batetan nola sozial demokrazia eta eurokomunismoa afalosteko orgia superrelastiko batetan musuka eta zirika zeudela ikustatu zuen. Han bertan zeuden, Pandres, Renegas, Partines, Lerchundes, Maturas, Harzelos; Paneros eta grekera eta hebraiera menderatzen dituzten beste batzu, denak animalia berdinak, hau da: zerri patak, bekereke muturrak, eta otsoren bihotzak dauzkatenekoak. Gorritu barik, gorriak baitira, hebraiera sekretuki ikastea proposatu zituen Marzingeri.

Bai euskarari hitz magikoa esanda gure heroak solasaldi hau botatu zien erdaraz: *No aprenderé ni hebreo ni arameo, ni interpretaré códigos, ni haré pactos macabeos. No me callaréis ni aunque me déis el ministerio de comunicaciones interestelares!*

Eta zerutik zetorren ahots bat entzun zitekeen honela zioela:

Hau da ene seme alaba guztiz maitea, berarekin dagian plazerra ez du mende honek ulertuko.

Berehala kontrakorren bihotzean inbidia eta gorrotoa jaio zen Marzingerren kontra. Lehen edo geroago hil egin behar zutela erabaki zuten. Horretarako bere bihotza eta adimena zatikatzea pentsatu zuten. Pandreas, Partines eta Paneros akonjatuta "eusko gudariak gara" kantatzen zutela. *(Jarraituko du)*

Sir Jauna

LUCHINO VISCONTI

Zinegile gehienek oztopo handienak pasatu behar izan dituzte beren lanak eta balio artistikoak ezagun eta onhartuak izateko. Sarritan, eritzi politikoaren kausaz, egileen ideia filmikoak ezin ahal izan dira egin, askotan produktuen komertzializazioaren atxakiaz, pelikulak ez dira filmatu... direktore gazteek ondo dazagute fenomeno hau. Orduan, zinearen historian oztopo horik gainditu izan behar ez dituen direktore bat aurkitzen dugunean, berehala zera esaten dugu, edo ideia extrafilmikoen aurkeztatzailerak da —direktore politikoak edo propagandistak—, edo publikoaren arauera balore gabeko filmeak egiten ditu —direktore komertzialak—. Ba, hala ere, Visconti lege orokorraren salbuespena izan da.

Visconti, ingurune baten ondorioa

Hala ere, ez dezagun pentsa Visconti-ren hospea lan gabe eta ezereztatik sortua dela. Aitzitik, filmegilearen lanak oso landuak dira, azken hitaileak ere kontrolatzen ditu, eta, ber esanik ere ez dago, filme osoaren erantzukizuna berauek hartzen du, erantzukizun askatasun oso guttiarekin zaielarik.

Horretarako Visconti-ren formazioa oso handia izan behar da. Eta horretarako begiratzea nahiko dugu horretaz jabetzeko. Familia aristokratiko eta aberats batetan jaioa —a ita, Modrone-ko kontea, ama burgesia aberastuaren sinboloa—, ttiki-ttiki literatura, musika, teatroa eta opera xurgatu zituen, Milanoko giro dekadente eta preziosista hartan.

Dekoratzaile gisan, bere aitak sortutako teatro talde batetan lan egiten du, baina zaldi-hazketara dedikatzen dena uzten du. Italiako faxismoaren lehen urteetan egiten diren zaldierketak irabazleak bere ikuiluetatik ateratzen dira. Aktibitate honetan ere ez du ezer ere airean uzten: zaldierketak pertsonalki gobernatzeko eta, askotan, beraiekin bizi da, korritan.

Zaldiz aspertuta, Parisera doa, 1935.ean, bere gogoa zinean lan egitea delarik. Ordurako, teatro-dekoratzaile on baten hospea du, eta, ezagumenduen bitartez, Renoir-en laguntzaile gisan asten da. Hauxe izango da bere etorkizunarako giltzarria. Alde batetik, Renoir-en savoir-faire guztia ikasten du, eta, bestetik, haren komunismo zaletasunak marxismoan sartzen du. Hemenatik aurrera bere lan artistiko guztia bi muturretan oinarrituko da: jatorri aristokratikoa eta konbentzimentu marxista.



Zine-egile. I. Errealismoa

Italiara itzuliz, 1937.ean, teatro-eta opera-dekoratzaile gisan lan egiten du. 1941.ean, gerratean, zentsurak bere lehen filme-projektua atzera botatzen du. 1942.ean, bere lehen filmea egiten du, "Ossessione" (Obsesio), non nobela amerikar bat inguru italiar batetan adaptatzen baita. Neorrealismoaren hasia da. Viscontik berak zine egiteko bide berri horren oin hari estetiko eta iraultzaileak artikulu pare batetan markatzen ditu; zinea "antropozentriko" bihurtzen du. Gero, Roberto Rosellini-k, 1945.ean, "Roma cita aperta"-rekin hildo beretik segituko du. Bere lehen filmean dekoratzaile gisan Franco Zeffirelli dago, gero Romeo eta Julieta, Asisko San Frantzisko eta beste filme batzuren egile izango zena.

Bere marxismozaletasunak gerran partanoekin burrukatzera eramaten du, eta Italian gerratea bukatu baino hamar egun lehenago, atxilotua eta torturatua da. Ihes eginik, urte pare bat beranduago bere torturatzaileen afusilamendua filmatzen du.

Gerra bukatuta, opera eta teatroa zuzentzen ditu, baina Italiako errealtate bipolarrak —Iparra industria, Hegoa feudala—, hegoaldera "A terra trembra" (Lurra ikaratan) (1948) filmatzea eramaten du. Filme honetan, arrantzaleak katanesez mintzatzen dira, Italianoak ez baita herri hizkuntza. Urte batzuek beranduago, "Rocco e suo fratelli" (Rocco eta bere anaiak) filmatuko du, non hegoaldekoen emigratio kontuak azaltzen dituen. Bitartean, "Senso" eta "Gau zuriak" filmatzen ditu, non estetizismoa eta XIX. mendeko erromantizismoa eta errealtate-aitasuna agertzen hasten baitira, beti ikuspuntu marxista batez, ez ortodoxoa, pertsonala baizik.

Zine-egile. II. Aristokrata dekadentea

Visconti-ren filmografia ugaria izan ez arren —14 filme, 3 sketch eta 2 dokumentale—, bigarren parte bat nabari dezakegu; parte honetan ia gai bakar bat agertzen da: aristokratiaren dekadentzia. Baina hau ez da iraultza batek eraginda, edo erorpen huts bat, baizik eta itzaltze bat, eta itzaltze honek bere atal eder eta estetiko ba du, eta bertan Visconti-k, aristokrata bera ere, dilettante baten gisan aurkezten digu klasearen heriotzea. “Il Gattopardo”, “Heriotzea Venezian”, “La chuta degli dei”, “L'inozente”... bide berdinetik doaz, denak oinharri literario desberdinekin behar bada, baina beti errealistazale dezimononiko eta dekadentea, progresista eta atzerakoia. Dilema hau bere heriotzerarte (1976.ean) mantenduko da.

Visconti-ren ideia filmikoak

Visconti-k filmean lan egiten duen guztiari dena eskatzen dio. Horregatik, Pasolinik ez bezala, aktore profesionalekin lan egiten du beti. Baina ez bakarrik “egiazko” aktoreak, baizik eta bere filmetan eta teatrotan edo operetan ez dago faltsutasunaren aldeko errekurtsurik: bere filmetan agertzen diren jauregiak egiazko jauregiak dira, bitxiak Cartier dira, likoreak eta champagnean Frantziako mahasti hoberenetatik espreski bere filmetarako erakarriak dira... Beraz, bere filmeetako “egiatasuna” ez da edonola lortua: azken puntutxoak ere helburu konkretua dauka, filmetan ikusten den bezala.

Zinea Visconti-rentzat zer den bere hitzetan esango dugu:

“Zinea, teatroa, opera, lana berdina da: espektakulu bati bizitza ematea... Ukaezina da zinean askatasun eta independentzia gehiago dagoela, hots, filme bat egiterakoan “egileago” izan zaitezkeela... baina zinea ez da sekula arte-lana, gehien jota, artisau-lana, lehen ordenakoa batzutan, bigarren edo hirugarren goa askotan... baldintzapean teknikoei lotuta baitago”.

I. Zuazo

MUNTAKETA LITERARI EDER BAT

Duela lau hilabete, Walerian Borowczyk-ek zuzendutako “La bête” delako filmea ikusteko abagadunea eduki dugu, eta era berean horregatik iruzkinik eroenak entzun eta irakurtzeko parada, pornografia nazkagarria besterik ez delakotik, zikinkeria hutsa edo zuzendariaren obsesioen erakusle makal eta txirra baizik ez delakoraino, ulertezin eta pedantea edo astun eta absurdua. Egia esan, ez nago seguru Román Basurto gure lagunarekin filmea ikustean pentsatu genuena benetako izan daitekeen, haatik zentzu bat ematen dio obrari behintzat, literaturaren bide eta moldeak filmegintzan ondo erabilia ikusidudan lehen aldiz egiten baitzait honako filme hau.

Filmea, bertan ikusten den bezala, idazle frantses baten —Voltaire-ren uste dut— istorio baten araueri dago muntatua, eta prosazko lanetan XVIII. mendean asko aitzineratu zen mailen teknikaz egina. Erdi Haroan, ezaguna denez, elaberri grekoetatik zetorren tradizioaz, ipuin, elaberri eta istorioak guztiz ziren lineal, hots, maila bakarrekoak etagizauren bakar baten inguruan idatziak, gero gaztelariazko pikareskaren bidez eta halaber Europako beste hizkuntzetan idatzitakoez ere teknikak aberastuz joan ziren eta XVIII mendean jadanik prosak ba du benetako nortasun bat, plano ezberdinak erabiltzen hasi eta ekin egin zelarik. Horrela, ba da, hiru mailatan egituratu du filmea Borowczyk-ek: 1. filmea aitzineratzen deneko oraingo, XX. mendeko errealitatea, 2. errealitate horretan sartzen den idazle zaharraren eta bere denborako jendeen kontzepzio eta burutapenen mundua eta 3. XVIII. gizaldian aitzineratu egiten den idazlearen istorioa, filmean ezkontzeko dagoen neska noblearen amets bat bezala agertzen dena. Eta benetan ederki lotu ditu hiru planoak, filmearen amaieraraino ez baitira korapiloak askatzen.

Lehen maila, esan dugun bezala, XX. gizaldian gertatzen da. Zorrek janda dagoen familia aberats baten istorioa dugu, porrot ez egiteko etxeko seme gehiena neska dirudun eta eder batekin ezkondu gura duena. Bigarren maila, berriz, istorio honen barruan egileak nahasten dituen aurreko mendeetako sexualtasunari buruzko ideiek osatzen dute, h. d., gizakiek eta animaliek elkarrekin harreman sexualik edukitzekotan piztiak sortzen eta jaiotzen direneko ustea, espezie biotatik zerbait omen duten izakiak. Eta hirugarren maila, hori egiaztatzen den barrokoaldiko kondaera, esan dugunez, filmean emaztegaiaren ametsetan jazotzen dena eta halako pizti eta andre baten maitasun animaleak erakusten dizkiguna. Filmearen giltzea hiru istorioak elkartzen direnean gertatzen da, une berean neskatzaren fantasia erotikoa, eta beste maila biak lotzen baitira, etxeko primuak buztan eta hatzaparrak dauzkala aurkitzen baitugu. Nioenez izugarria!

Ez dut ukatu behar filmeak zenbait pasartetan dauzkan elementu okaztagarriak, baina muntaketak eta fotografiak, fantasia erotikoarekin musikak bezala, aski aberastasun eta edertasun ematen diotelakoan nago.

Andolin Eguzkitza

EVA COBOREN BURRUKA



Eta uzkian seme ttikienak min zuela ikusi zuen.

Eva Cobo Zaballa, Santandereko emakume bat da. Duela hamaika urte, Jacinto Lococo-rekin ezkondu zen. Bi seme dituzte.

Orain dela urte bete, Evak, bere seme ttikienak uzkian min zuela ikusi zuen eta medikuarengana eraman zuen. Honek pomada batzuk eman zizkion baina hobakuntzarik ez zen nabaritzen umearengan. Eva harriturik zegoen eta umeak min hau bere aitak gauzez egiten ziola esan zuen. Evak lehendabizi ez zion sinetsi baina gero seriozki zihoala gauza egiaztatu zuen, umea sikologoengana eraman ondoren. Beste irtenbiderik ez zegoelakoan, separazio tramiteak hasi zituen eta bai bere senarra bortxatzaile bezala salhatu ere. Eta hemen hasten da Santandereko justiziaren zikinkeria ikusten.

Eva, Alderdi Komunistan militante zen eta herri mailan egiten zuen lan. Separazio demandan, senarraren defentsak zera agertu zuen, Eva, bere semeak zaintzeko kapaz ez zela, "actividades socio-políticas" eramaten zituelako.

Epailleak, Evaren aurka arrazoi hau zuelarik eta senarraren aurka bortxaketa salhakuntza bat, zer erabaki zuen? Umeen tutoregoa aitari ematea.

Evak, hau jakin zuenean, umeak berekin hartu eta alde egin zuen.

Hemen, Euskal Herrian bortxaketaren aurkako manifestapenak egin genituela irakurri zuen kazetetan eta hona etorri zen. Dirurik gabe, paperik gabe, polizia atzean zuela... eta azkenean, lege aldetik irtenbiderik ikusten ez zuelako, feministengana etorri zen eta prentsan bere kasua azaltzea erabaki zuen. Talde feministek Eva laguntzea erabaki zuten, arazoa ondo aztertu ondoren. Legalki, sententzia firme egin zen baina irregularitasun batzu izan zirenez prozesuan, berrikustaldi bat egitea posible zen. Honi begira presio bat egiteko, bai Bilbon eta bai Donostian zenbait ekintza egin dira, eseraldiak, manifestapenak, etab., Evarekin elkartasuna adieraziz eta lege matxistaren deuseztatzea exigituz. Azkeneko

berriak zera diote, prozesuan parte hartu zuen prokuradoreari gaitasuna kendu zitzaioala prokuradore izateko. Beraz, prozesu honek ez zuen ezer balio, eta orain arte ez dute hau jakin...

Asteartez, ekainak 13, berriz hasi da Santandereko kasu honen prozesua. Eva egoera larrian darrai. Senarrak, hau prentsara eramaten ba zuen hilgo zuela mehatxu egin zion eta egitez, bortxaketa salhakuntza agertu zuenean, hainbat kolpe jaso zuen senarra eta koinatarengandik.

Bortxakeria hauen aurrean, gure elkartasuna dugu harmarik onenak. Lagun dezagun Eva kasu honetan, emakume guztion eskubideen defentsan, emakume guztion eskubideen defentsan.

Itzlar

ZAIN DEZAGUN BUSTURIALDEA LAN GUZTIAK GELDI

Oligarkiak badakarkigu
diru jaunaren legea
Herritarrontzat ez da besterik
geldi egon ta pakea
Baina agertu dezagun argi
guk geure eskubidea
Oligarkarik ez dugu nahita
BIBA BUSTURIALDEA

Eta Busturiako Hauzo Elkarteak, eta eskualdeko zenbait jende proiektu konkretu honen kontra altxatu zen, lehenago onhartu zen orokorraren kontra joateko modu bat baitzen, eta legearen barnean, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak, Bizkaiko Hauzo elkarte askok, eta Busturialdeko pertsona askok ere, inpugnatu genuen. Baina inpugnazio guztiak ez dute ondoriorik egin, guk dakigunez.

Dena dela, nahiz eta azken aldirian Lemoizeko zentral nuklearraren kontrako burrukak bultzatzen egon garen, eta gure problema hau baztertua gelditu, berriz gure errebindikapenak plazaratu behar ditugu. Orain arte egin ditugun ekintzak hartu eta indartzeko prest gara.

Orain arte, batzordeetakoek aldizkari gisa 10.000 orri atera ditugu eta informe batzu, arazo guztia azalduz. Baita ere pila bat kartel. Baina hau guztiau ez da nahikoa.

Azkona jaunak, Urdaibaiko urak aztertu ditu, eta ondorio batzu atera ere bai. Hurrengoan azalduko ditugu. Azterketa hauek beharrezkoak dira hibiaren historia zientifikoa egiteko. Honela jakingo dugu, gure hibaia hoherantz ala txarrerantz doan.

Baita A. Garrotek eta J. B. Heinink-ek filme bat burutu dute, batzordeekin batera. Filme honetan inguraldiko bizimodua, egoera naturala, Afrikarantz pasoko txori handiak eta eguneroko bizimodua ere bai azaltzen zaigu. Azkenean gogorki salatzen dira ditugun plangintza guztiak, dei bat eginez esjualdeko jende guztiari; etorkizuna denon egitekoa dugu, eta ez minoria batena.

Duela urte bat baino gehiago, J. R. Etxebarriak azaldu zigun, nolako arazoa sortu zen Busturialdean. Busturialdeak zaintzeko batzordekoek, lehen prentsa aurrean arazoaren muina adierazi zuten. Ondoren EGINen azalduz joan dira batzordearen ekintzak.

Lehenengo uda eta udazkenean, herri bakoitzeko batzordeak aritu ginen, Busturialdetik, herririk herri plangintza, gure eskualdeko etorkizuna eta abar plazaratzen eta etabaidatzen.

Eskualdeaz administrazioak antolatu duen plan orokorra ez dut azalduko. Nahiko dugu ondoko planoak ikustearrekin, nola aldatzen den itsasadarra. Batzordeetakoek ezagutzen dugu, eta sakonki aztertu ere, delako *Plan especial de Aprovechamiento de la ría de Mundaca*, Diputazioak onhartu zuena. Hauxe dugu azken batetan dokumentu dinportanteena. Beste hitz batzuekin Bilboko Camara Oficial de Comerciok argitaratu zuen, *Estudios socioeconómicos comarcales, Guernica-Bermeo* delako liburuan, 1972.ean argitaratua hain zuzen ere.

Lehen mementuan ez zen mugitzen inor, eta eskualdekoak nahiko lasai ginen. Baina nondik nora dragatzen hasten direla hibaia Muruetako astilerotik itsasorantz. Probisionalki Diputazioak onhartu zuen, delako hondartza artifizialen proiektua, hau da, hibiaren inguraldi batzu hibaiko areaz bete, eta gero gerokoak. Eta nork ez daki, siku eta lehor gelditzen diren lekuak, asko balio dezaketela, eta gehiago beste "plan especial" delakoan, lur industrial bezala baldin badaude.

Filme hau Euskal Herri guztian azaltzeko gogoia dugu. 16 milimetrokoa da. Laster edukiko ditugu saltzeko ere, super-8ko neurrian (interesatuak Anaitasunara eska dezakete).

Baina orain zer egin? Oraingoa erantzun bat dugu: LAN GUZTIAK GELDI. Ba dakigu ondo jakin ere, proiektu guzti hauen atzean, betiko kapital monopolista dabilela, Diputazioak kontrolatzen duen oligarkiak interesa handiak dituela. Eta ezin gara minoria horren aurrean makurtu. Eskualde osoko jendeak guttienez erabaki behar dugu zer egin. Kontuan hartzen dugu, eskualde guztiek beren ekilibrio natural berezia zaintzen ahalegindu behar dutela. Eta guk deus erabaki gabe, berez egunetik egunera Bizkaiko jolas leku bihurtzen ari zaigu, lanpostuak urritzen, eta eskualdeko demografia beherantz doa.

Eskualde bat fabrika gehiegi ezarri, desekilibra daiteke, baina baita jendea hustuz eta kanpora joatera behartuz.

Beraz, eskualdeko politika egin beharrean aurkitzen gara, eta arazo konkretua orokorrarekin lotuz, J. L. Lizundiak bultzatzen duen antolamendu politiko-administratiboa, euskal batzarre nazionala eraikitzeko guztiz egokitzat jotzen dut. Eskualde bakoitzak bere nortasuna eta plangintza bete behar ditu.

Hildo honetatik eskualdeko hauzo elkarteak, elkarren arteko harremanak gehituz, eskualde kontzientzia sortu eta maila honetan problema zenbait planteiatzera behartuak aurkitzen dira.

Oraingoz, beste arazo batzurren artean, inportanteena, geure espaziorren plangintza dugu.

J. Agirreazkuenaga





berri indarrez elkarrekin egon

1938.ean, bidean zeuden dibortzio eta bereizketa tramiteak erarazi egin zituzten. Ezkontza baren legea ere deuseztatu egin zen. Esaten zutenez, bataiatuta zen edonor, indarrez katolikoa. Horrela, nahiz eta gero erlijioa elizara joan behar zen ezkon-

Etan ez hori bakarrik. Errepublikan boron dibortzioa eskuratu zuten behin, egoera larri batetan aurkitu ziren bat batean, dibortzioak baliogabeak deklaratu baitzuten! Horrela, ba zen berriro ondu zen jendea ere, eta gobernak zioenez ezkontza berri honek zuten balio, eta hainbat urte ikusi gabe zuten lehengo ezkonkide berrekin bizitzera joan behar zuten, baina bizi nahi bazuten.

Beste batzuk, lehen elizara joan ziren ezkontzera, errepublikak ezkontza zibila onhartu zuenez, lehengo ezkontza apurtu eta zibilez zuten berria. Beno ba, gobernu berriak, zibila huts deklaratu zuen. Elizakoa baliokotzat jo zuen.

Garbi dago ba, Eliza eta Faxista Gobernuaren arteko harremanak bereziki eta hestuenak zirela.

Oraingo egoera

1953.ean, Elizak eta Espainiar Estatutak "konkordatu" izenpetu zuten, estatua katolikoa zela aitortuz. 1967. arte ez zen aldaketa handirik izan eta ordukoak ere garrantzi teorikoa izan zuen praktikoa baino, baina behinik behin lege batean, erlijio askatasuna onhartu zen. Orain ezkontza zibila egitea ez da zaila, baina gero ikusiko dugun bezala, gero ezkontza hausteko erantzun gehiagorik ez dago zibilean.

Dibortziorik ez dagoenez, gaur egun harreman bat apurtzeko, separazio eta baliogabetasuna erabiltzen dira.

Separazioa, bai zibilean eta bai elizakoan eskura daiteke, baina elizakoan kausa gehiago ezagutzen dira, hots, "animarentzat arrisku handia", "gorputzarentzat arrisku handia", "elkarrekin bizitzeko zailtasun handia", "katoliko ez den sekta batetan egotea", etab.

Baliogabetasuna lortzeko ere, elizakoan errazagoa izaten da. Zibilean kausa ondorengo sei hilabeteetan eskatu behar da, elizakoan berriz, eperik gabe.

Gezurra dirudi, baina errazagoa da elizako ezkontza bat apurtzea, zibil bat baino.

Separazioetan eta baliogabetasunetan aurkitzen diren zailtasun arruntenak

Separazioetan, ia beti errudun bat aurkitu behar da. Honen gain, Eliza Tribunal batzua, akordiozko separazioak egiten hasi dira. Baina gauza ez da hain erraza; horrela egiteko, gauza guztietan —dirua, etxea, umeak, etab— akordio bat behar delako.

Errealitatean, gauzak oso gogorrak izaten dira, eta prozesuan gehiago gogortzen dira. Askotan, bata bestearen erruak urteak bitartean aurkitu ondoren, gorrotoa egunetik egunera handituz bien artean... tribunalak, separazioarentzat arrazoirik ez dagoela erabakitzen du eta elkarrekin bizitzera ezkonkideak behartu ere, erabaki hau onhartzen ez duenak eskubide guztiak galtzen dituelarik, etxeari, diruari, umei eta guztiei dagokienean.

Bikote askok, separatzea erabakitzen dute egitez, baina tribunale-tara joan gabe. Hau posible izaten da, biek bizibide bat baldin badute, umerik ez badute eta borondate ona baldin badago... baina arriskugarria da, fede txarra egunen bate-tan azaltzen bada. Beste bikote batzuk, kontratu partikular bat egiten dute posibilitate honen ondorio-rik ez izateko.

Baina separazio kasu guztietan, ezkontza ez da hausten, eta separatuak daudenak honen betebeharrengan loturik aurkitzen dira. Eta noski, ezin dira berriz ezkondu. Baliogabetasunari buruz, ezaguna da publikoki nola eramaten den. Ba daude, legeak esaten duen kasuetan aurkitzean lortzen diren bakar batzuk, baina gehienak diruaren bidez lortzen dira. Antonio Aradillas-ek zioen bezala, Erroman, Brookling-en, Boston-en, etab. aberats asko egoten dira baliogabetasuna diruz tramitatzen. Eta hainbat milioien trukez pertsonal askatasuna lor dezaketenenak, dibortzioaren etsai handienak dira gainera...

Gaurko egoera, matxista eta klasista

Dirudik ez duenak, ezin du baliogabetasun bat lortu, "kausa zuzen" bat ez baldin badu, eta hala ere luze eta zaila izaten da dirurik gabe.

Eta noski, separazio kasuetan, emakumea izaten da egoera larrian gelditzen dena. Batetik ekonomi independentzi bat ez duelako; bestetik, umeen gain "boterea" —patria potestad— aitarena delako; gero, errudun bat aurkitzeko orduan, beti bezala, moral neurri desberdinak erabiltzen direlako gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, horrela, nahiz eta adulterioa despenalizatua egon, tribunale-ntzat ez da berdina gizon batek edo emakume batek ezkontzatik at harremanak edukitzea, edo umeak "behar bezala" ez zaintzea, edo bazkaria ez prestatzea, edo etxea garbitzea, etab. Hauxek eta sexualki gizona poztea, emakumearentzat ezkontzak dakartzkion betebeharr-tzat jotzen dituzte tribunalek, eta ez baditu betetzen, bera da errudun.

Itziar Urtasun

HITZ EGIN, HITZ EGITEN IKASTEKO

Beharbada, euskara ikasteko metodo berri bat argitaratzea, ez da albiste interesgarria. "Hainbeste metodo kaleratu dira azken urteotan!..." "Beste metodo bat,..." eta antzerako gauzak pentsatuko dituzue. Hala ere, oraintsu argitaratu den HITZ EGIN izenekoa, zertxobait berezia da eta aipamena merezi duela uste dut. Metodo honen berezitasunen berri edukitzeko, batzorde egileko batzurenango jo dugu galdeka: Imanol Berriatua eta Juan Luis Goikoezarenengana. Biok oso ezagunak dira euskalduntze eta alfabetatzerako taldeetan, urte luzetan eginiko lanagatik. Eta nolabait hasi behar zenez, galdera honetatik bideratu dugu elkar hizketa.



Zer dela eta liburuan ez da egileen izenik agertzen?

Zuk diozun legez, ez da pertsonen izenik agertzen. Liburuaren argitaratzailea Euskaltzaindia da. Izan ere, liburuak Euskaltzaindiak Oinarrizko Euskararako sorturiko batzordeak egina izan da.

Oinarrizko Euskara aurten leku askotan entzun den hitz eta kontzeptu bat da. Hain garrantzizkoa ote da?

Begira! Israel-en ikusitakoak —diosku Imanolek guttiz beroturik— liluraturik utzi gintuen. Haral Hoge eta bost urtetan bi milioi pertsona hebraieraduntzea ez ote da mirezgarri? Euskal Herrian ere bi milioi pertsona ditugu euskalduntzeko. Haiek erabilitako bidea, gure artean ere oso baliagarri izan ahal dela pentsatu genuen eta Euskaltzaindian aurkeztu genuen ideia. Han oso ongi hartu zuten gure asmoa eta, ondorioz, Oinarrizko Euskararako Batzordea antolatu zen.

Tiral Hori guztiori interesgarria da, baina ez dut argi ikusten, Israel-en eta Oinarrizko Euskararen artean dagoen lotura.

Ba, oso erraza da. Israel-en hebraiera mailakatzeko plangintza nazional bat prestatu zuten. Horretarako, maila desberdinak antolatu zituz-

ten, eta gorantz joateko lehen mailatik hasi behar; eta lehen maila hori oinarrizko hebraiera da. Eta hau zer den? Ba, hitz eta egitura gramatikal sinpleenak erabiliz, bizitza arrunteko arlo guztiak lantzea. Honela, egunkarietan, aldizkarietan, irratietan, telebistan,... maila horretan erabiltzen da hebraiera programa eta artikulu batzutan. Modu honetan, hebraiera ikasten ari direnek, motibazio handia dute hizkuntza hori ikasteko, zeren lehen momentutik praktikoko gertatzen zaie eta.

Beraz, zuen metodoa praktikoa izan dadin, antzera egin beharko duzue Euskal Herrian ere, ez da?

Noski —diosku Juan Luisek, hitza hartuz—. Gure metodo hau, Euskaltzaindia euskara mailakatzeko egiten ari den plan nazional baten barruan kontsideratu behar da. Plan honek arrakasta edukitzeko, nazio mailan hartua izan beharko du. Hori dela eta, Euskal Herri osoari begira lan egin nahi dugu. Baina plangintza horretan, metodoa parte bat baino ez da. Kontzientziatu egin behar ditugu idazleak, lokutoreak, hizlariak eta informabideetako euskaldunak, plangintza horretan parte hartzeko. Egunkarietan, aldizkarietan, telebistan, irratietan,... maila horretako lanak ere egin beharko dira. Ez guztiak, baina bai portzentaia minimo batez.

Eta benetan uste duzue, hori egingo dutela?

Hori nahi dugu behintzat; eta esperantzarik ez zaigu falta. BAI EUSKARARI kanpainaren arrakasta ikusi besterik ez dago. Esan dizugun bezala hau plan nazional baten pauso bat da metodologiarena hain zuzen ere. Baina metodogintza bizitza arrunteko praktikarekin osatu behar da. Ikasten ari direnek, materiale lagungarri eta praktikoa behar dute, ikasitakoa etengabe praktikatzeko. Hori dela eta, Oinarrizko Euskararen mailako lanak behar ditugu informabideetan. Horretaz gainera, metodoaren mailan eginko liburuxka batzu prestatzeko asmoa daukagu; bistakoa den bezala, horretarako idazleak behar ditugu. Gero eta idazle gehiago biltzen ari zaizkigu ideia horren inguruan eta hori pozgarri da.

Interesgarria. Baina goazen aurrera. Nolako da, orain lehen maila irakasteko atzera duzuen metodoa?

Aho-belarrizko metodo bat da; lehen unetik hitz egiten hasteko. Horatik datorkio izena: HITZ EGIN. Hizkuntza mintzatuan finkaturik dago eta bertan kaleko bizitza arrunteko hizkuntza erabiltzen da. Lanik gehiena ikasgelan egiteko da irakaslearen laguntzaz, nahiz eta etxerako ariketa-liburu bat ere prestatu dugun.

Irakasleak aipatu ditugunez, horietaz hitz egin nahi nuke. Pentsatzekoa den legez, metodo hau ezin ahalko da edonola erabili. Nola jabetuko dira irakasleak zuen metodologiak?

Irakasleak oso garrantzizkoak dira edozein metodoren erabiltzetan. Irakasle onak behar ditugu, ongi prestatuak. Kezka horrekin ibili gara eta irakaslearen lana errazteko eta bideratzen laguntzeko, irakaslearentzako liburuak prestatu dugu. Bertan ikasgaien azterketa egiten da eta era desberdinetako ohar metodologikoak egiten dira. Horrela, irakasleak bide ona du, metodo honi ahalik eta fruitu eta probetxu gehien ateratzeko.

Eta metodologi ikastaroak egiteko asmorik ba al duzue?

Zer esanik ez. Talde tekniko bat prestatzeko asmoa dugu, Euskal Herrian zehar horrelako metodologi

astaroak emateko. Hauekin eta irakaslearen gidaliburuarekin, irakasleak ingi trebatu ahalko direla uste dugu. Bestalde, Euskaltzaindiaren batzordea irakasketa delarik, lan hau aurrera eramateko. Alfabetatze koordinakundearen laguntza edukiko dugula uste dugu.

Metodoa, berez, erabat originala da ala besteren batetan oinharrituriko egokipen bat da?

Erantzuz, metodo ingeles ezagun batetan oinharritu gara: Alexanderen prezeski. Irudiak ere bertatik hartuak dira, egilearen baimenarekin. Ez da itzulpena, ordea. Egokitu dugun hitzak euskararen kasurako. Eta horietako, eranskin batzuek ipini dizkio- guen deklinabidea, aditza eta hiztegia.

Liburua ikusiz, hiztegi bitxia aurkitu dugu, irudiz eta azentuz beterik. Zer da hori?

Bai. Metodo honetan erabiltzen den hiztegiakuntza bakarra euskara da. Ahal bezala, ez da inoiz erdarazko itzulpenik erabili. Horregatik, gure hiztegiko hitzak erakolitzak irudi bat darama alboan. Azentuen arazoa bestelakoa da. Praktikan ikusi dugunez, ikasleek erakolitzak erabiltzen dute azentua. Gure jarri ditugun azentuek, nolabaiteko laguntza izan nahi dute, hitzak ongi erabiltzeko. Hala ere, lehen pauso bat baino ez dira, azentuena ongi erabiltzeko behar den arazo bat baita. Dena den, liburu osoa bezala, behin-behineko lan bat da.

Oker ez banago, liburu hau lehen mailakoa da. Zenbat denboratan ematekoa da eta ondoren zenbat maila egiteko asmoa duzue?

Hori Praktika errealean ikusi dugunez, zortzi hilabetetan zehar erabiltzen hiru ordu emanaz ongi menderatu ahal da liburu hau (lau ordu erabiltzen emanaz, hobe, noski). Dioguna erabiltzeko asmoa dugu: Aurtengo ikas-urtean, metodoa egin arau, praktikara erabiltzeko asmoa dugu berrogei urtez gorako ikas-urteekin. Eguneroko oharrak bildu ditugu: Orduz ordu eta minutuz minutuz erabiltzeko asmoa dugu, eta aurkitu ditugun trabak eta lagungarriak irakaslearen liburuan jarri ditugu. Urtebetean, baina, lehen mailan hitz egin ahal da euskaraz. Ondoren beste bi edo hiru maila gehiago egiteko asmoa dugu, progresiboki maila altuagoan hitz eginaz. Edozein modutan, ez da hiru urte itxaron behar mintzatzen hasteko, lehen mailatik hasten baita.

Nolabait esateko, ikasteko behar den denbora, ongi neurtua daukazue. Ez ote da hori garrantzizkoa, zenbait militanteri euskararen ikasketa exigitzeko?

Militanteak aipatu dituzu eta ongi erabiltzen. Honela, metodo eta bidea dute, erabiltzeko baten barruan ikasteko. Gainera,

HITZ EGIN!



**OINHARRIZKO
EUSKARAZKO
METODOA.**

**IRAKASLEAREN LIBURUA
1. MAILA**

Oinharrizko Euskararen filosofia eta plangintza onhartuz, beren alderdi edo taldeetako barne-aldizkarietan euskara-maila horretan eginiko artikulak egin ahal dira. Eta hori ona da, diglosiarekin amaitzen hasteko. Gehiago oraindik, hizlariak ere maila desberdinetan hitzegiten ikasi ahal dutela uste dugu.

Luze hitzegin dugu eta hainbat arlo desberdin ukitu ditugu. Baina bat falta zaigu oraindik: ekonomikoa. Merke ala garesti dira liburuak?

Hori erlatiboa da, baina gure eritziz merke dira. Ikasleentzako liburuak 300 pezeta balio ditu. Urte osorako ez dirudi gehiegi. Ariketa-liburuak 200 pezeta balio ditu eta lehen mailako irakurketa gisa atera dugun "Errekalde kaleko burruka" izeneko liburuxkak; 50 pzt. Gaur egunean pezeta duen kotizazioa ikusiz... Irakaslearen liburuak zertxobait gehiago, 600 pzt., tirada tikiagoa egin da eta.


Bukatzeke, ezer gehiago esan nahi al duzue?

Esan,-esan, luze hitz egin ahal dugu, baina nahikoa delakoan gaude. Euskal Herriaren berreuskalduntze bidean aurrerapausoa eman nahi genuke. Euskararen bateratzean ere lagundu nahi dugu. Eta euskaldunen modura amaitzeko, gaizki eginak barkatzea eta ongi eginak onhartzea —eta erabiltzea— eskatuko dugu.

Hori berori desio dizuet nik neuk ere. Zorionak zeuen lanagatik eta eskerrik asko. Euskaltzaindiaren lemak dioen legez: Ekin eta jarrai.

Ramon Garai
33. hor.

Errekalde kaleko burruka



**1. Maila
Fikzioa**


ALFABETATZEN



San Ferminak. Polizien balak zaurituta lagunek ospitalera daramate. Iruineko zezenketa berria.



Bilboko Arenaleko zubia. "Habiamos avanzado mucho en la imagen popular de las FOP durante este ultimo año." Martin Villak esana.



Errenteria. Poliziak egindako zakurapenaren ondorioa. Hau da indarrez eta harmaz inbadituriko herri bat. Hau sinesten ez duenk bertora etorri eta ikus beza.



OSOTASUNA ADIERAZTEKO MODUEZ

Oсотasuna adierazteko erabiltzen diren hitzen artean, beharbada ezagunenak ondoko hauk dira: *den*, *oso*, *guzti* eta *oro* (azken hau arkaiko samarra da). Hitz hauk guztiok elkarren sinonimotzat jo daitezke, baina, hala ere, beraien artean nolabaiteko banaketa semantiko bat dago, nahiz eta batzutan, mugak guztiz argiak ez izan. Hori dela eta bakoitzaren erabilkeraren eremua zein den azalduko dugu, beharrik erabilmodua teorikoki adieraziz eta ondoren zenbait adibide jarritz.

DEN

Hitz honen bidez, parterik ez duen batasuna edo gauza baten osotasuna adierazten da. Demagun, adibidez, haur batek osorik jan duela sagar bat. Honela esaten dugu:

dena jan du

Era berean, hauxe esan dezakegu:

neska horrek dena daki

Batzutan, errepikatuz erabiltzen da, osotasun kontzeptuari indar gehiago emateko:

den-dena daki

Hitz hau Bizkai aldean erabiltzen da nagusiki. Eta bai etimologikoki eta bai kontzeptualki, era mugatu singularrez deklinatzen da. Ez da harrizkoa beraz hurbiltasun-gradu desbedinez aurkitzea: *danau*, *danori* eta *dana* (Bizkaian). Horrela, Peru Abarka liburuan zera irakur daiteke:

Ez nakutsu danau mankauta, luma bat bago?

Bizkaian pluralez ere ageri da sarri: *danok*, *denak*. Esate baterako, hor ditugu askotan erabiltzen diren esaldi hauk:

Denok bat egin behar dugu

Denok etorri gara

Beharbada, azken forma honen eraginaren kausaz sortu dateke *den* eta *guzti* formen erabilkeraren arteko nahastea.

OSO

Den delakoaren antzera, *oso* hitzak ere parterik gabeko osotasuna adierazten du. Zer esanik ez, beste zentzu batzuz ere erabiltzen da.

Edozein modutan, praktikan ba du *den* hitzarekiko desberdintasun ttiki bat. *Oso* hitza, izen bati lagunduz erabiltzen da gehienetan; *den* hitza, ordea, bera bakarrik ohi doa:

pastel osoa jan du

egun osoan lanean iharduteko asmoa du

urte osoan egon da gaixorik

Baina

dena jan du

Oso hitza bera bakarrik erabiltzen denean, partitibo kasuan deklinatzen da nagusiki:

osorik jan du

GUZTI

Hitz hau, multzo baten osotasuna banakoen edo elementuen bilketa edo suma bezala adierazteko erabiltzen da. Hona hemen zenbait adibide:

guztiak etorri dira

gizon guztiek dakite

guztiei esan diet berdin

seme-alaba guztientzat dira opariak

Ikusten denez, bera bakarrik zein izen bati lagunduz joan daiteke. Eta beste hizkuntza batzuren gramatika erabiltzen den kontzeptu batez baliatuz, *guzti* hitza multzoaren elementuak kontagarriak direnean erabiltzen dela esanen dugu.

Bestalde, hitz hau erakusleekin batera ere erabili daiteke, beti ere hurbiltasun-gradu berean, noski. Honela hain zuzen ere:

hau guztiau

hauk guztiok

hori guztiori

horik guztiok

hura guztia

haik guztiak

Ikusten denez, hitz hau, singularrean erabiltzean, *den* hitzarekiko interferentzian dago. Horregatik, interesgarri gerta daiteke, *den* delakoa singularrerako eta *guzti* delakoa pluralerako espezializatzea.

ORO

Arkaikoago bada ere, zentzuz *guzti* hitzaren antzerakoa da; hots elementu kontagarri osoturiko multzoaren batasuna adierazteko erabiltzen da. Desberdintasun ttiki bat dago, ordea, bien artean. *Guzti* delakoa, era mugatuan deklinatzen da; *oro* delakoa, ostera, era mugagabea. Dena dela, era mugagabea deklinatu arren, konkordantziá pluralerako egiten du nagusiki.

orok dakite

ororen laguna da


Edozein modutan, era desberdinez agertzen da erabilirik

gizon orok behar luke pentsatu

gizonak oro etorri dira

bere dirua oro gal jokatu du

Oso baliagarriak dira, halaber, *orotan*, *orotara* eta antzerako formak, koadroetan eta bestetan osotasun-idela adierazteko.



EUSKADIKO HERRIARI AGIRIA

Ekainaren 23an gaueko 11:50etan asesinatu izan zen Jose Emilio Fernandez eta zaurituak Koldo Zenitagoia eta Felix Marias, Guardia Zibilen kontrol batetan.

Elorrio Herriak, baturik, zera adierazi nahi du:

a) Asperturik gaude jasaten dugun errepresio egoera honetatik, gaur Elorrioko herriari tokatu zaigu, baina dakigu jakin egoera berdina dugula Euskadi osoan eta estatuko herrialde guztietan.

c) Salatzen ditugu indar errepresibo hauk, G.Z., A.P., etab., zeren euskal eta espainol oligarkiaren interesak defendatzen baitituzte, langilegoaren aurka jokatu.

c) Konturatzen gara indar errepresibo hauk deseztatu behar direla eta herrialde bakoitzean beste ordenaen zaindariak sortu herriaren serbitzuan egongo direnak eta herriak kontrolatuko dituenak.

d) Era berean salatzen ditugu Elorrioko alkatea "ez-kutatu" egin baitzen eta ez zuen aurpegiarik eman beste zenbait gertaldietan bezala, ez baitzuen erraztasunik eman Udaletxean batzartze-ko eta berau herriko etxea denez zabalik egon behar du moeta guztietako ekintzak egiteko eta ez soilik ekintza ofiziale tarako.

Gauza guzti hauk direla eta zera esijitzen dugu:

— INDAR ERREPRESIBOEN DEUSEZTATZEA.

— HERRIALDE TAKO ORDENU INDARRAK SORTZEA, HERRIAK KONTROLATUKO DITUEN INDARRAK.

— ERRESPONSABILITATEAK ESKATZEA, HERRI EPAIKETAK EGINAZ.

— ALKATEAREN ETA KORPORAZIOAREN DIMISIOA.

Elorrioko Asanbladak
Ekainak 26

Anaitasunako Zuzendari Jauna,

Ikastolek egiten dute lana, baitezpadakoa da, inork egiten ez duena. Ikastolek dute euskara, haurrei erakutsiz iraun araziko.

Gaur egun Iparraldeko ekintza garrantzizuenetarik bat ikastola dateke, kultur arloan. Baina ikastolak ere ezin biziz daude bereziki ekonomia arazoarengatik.

Horregatik, aurten ere antolatu dugu kanpaina bat: "Ikastola bizi dadin, Euskaldun bakoitzak libera bat".

Nola administrazioeak edo Frantziako estadiak ez gaituen laguntzen, herriari eskatu diogu laguntzea herriko suskribapen bitartez.

Kanpaina hori eginga izan da bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Erran gabe doa, Hegoaldean hasi aintzin, Euskal herriko ikastolen konfederakunde an, eskatu genuela kanpaina horren egitea.

Nola eginga izan da?

— Saltegi, ostatu, lantokietan ezarri ditugu kutxak Iparraldeko ikastolentzat.

— Gutun batzu igorri ditugu, gure beharrak erakutsiz eta laguntza galdueginez.

— Caja Laboral edo Lankide Aurrezki Kutxa etxe bakoitzean badago SEASKA-ren izenean kondu bat idekirik, zuen laguntzaren emateko.

Kanpaina hori bururatu da ekainaren 15'ean. Eskatu egiten dugu, lehen bai lehen kutxak igortzea SEASKA-ra. Oraindik berz, goizegi da kontuak finkatzeko. Geroago, erranen dugu kanpaina horrek zer ekarri duen.

Jadanik, gure eskerrik beroenak igortzen dizkiogu gure laguntzaile guztieri.

Euskara ez da zenbaiten gauza bakarrik baina denen arangura izan behar du. Ez dugu hiltzera utzi behar. Euskararen geroa gure eskutian dago.

"Anaitasuna"-ko irakurle maiteei:

Ekainaren 6ean, Norberto sainduaren jai an, Jainkoaren laguntzarekin, nire bizitzaren larogeigarren urtea bete dut.

Horren kariaz, Euskal Herriko bazter guztietan bizi diren euskaltzaleengandik zorion eskutitz eta txartel ezinago ugariak hartu ditut. Nire adiskideen euskarazko hitz maitagarriak poz handi handia eman didate.

Zoritxarrez ezin diezaloket bakoitzari eskutitzaren bidez erantzun, eskutitz asko helbiderik gabe etorri zirelako.

Horregatik "Anaitasuna"-z ballatzen naiz guztiei nire eskerrik hoberenak emateko. Batean gure euskara paregabearen onerako lanean arrakasta opa diet.

"Gora Euskal Herria eta Gora Euskara" deiarekin gelditzen naiz Pragako euskaltzale sutsu

Norberto Tauer
Pragatik 1978eko ekainaren
15ean

1978ko ekainak 19

Kaixo lagunak: Azken Anaitasuna alean gogoz irakurri ahal izan dut J. R. Bilbaon gogoetak. Zalantzarik gabe "Euskara! Jalgi hadi kiroletera" izan behar du geure borroka ohina, baina "Sustraiak" taldeak etorkizunik izango badu, zera behar dugu, eta hori da euskal herriak berak izatea bere "kinielak".

Garbi dago. Beste zenbait arazoetan Euskadik Madrileko lapurketa jasan behar badu, kinielak direla medio hemendik joaten zaizkigun milioien buru geu izan behar dugula. Hain beharrezkoak ditugun diruak!

Azterketa serio bat merezi du nola eta fazist-kapitalismoek izorra duen "kirol" izena. Espektakulo tonto bat bihurturik, zenbaitentzat ekintza eskola bat behar lukena. Baina hori beste kontu bat litzateke. Orain nik hemendik zabaldu nahi nukena ximpleki hau a: Geure kinielak behar ditugula bi arazoiez: Madrileko lapurketa bat deusezteko eta geure kirolak behar duen diru iturri bihurtzeko.

Besterik gabe,

J. U

Anaitasunako Zuzendaria,

KRESALA, Euskal dantzari taldeak, bere sorreraren hamargarren urtebetetzea dela bide, *Argazki Lehiaketa* bat antolatzen du jarraitzen duena oinarritzat harturik.

ARAUAK

1. Euskadin bizi diren guztiek parte har dezakete lehiaketa honetan.

2. Gai bakarra da: EUSKAL DANTZA.

3. Argazkiak zuri-beltzetan edo koloretan aurkez daitezke eta sendoturik behar dute izan. Neurria librea da, 13 x 18 zentimetrotako guttiena gaindituz gero.

4. Partekide bakoitzak gehienez lau argazki aurkez dezake.

5. Argazkiek atzealdian izenburu edo goiburua eraman beharko dute. Helbide honetara bidaliko dira: KRESALA, Euskal Dantzari Taldea, K/ EUSKAL HERRIA, 9-behealdea, Donostia; estalki txiki batekin batera. Honen barruan egilearen izen-deiturak eta helbidea adieraziko da. Azalean, berriz, lanaren izenburua idatziko da.

6. Inskripzioak egiteko epea arautegi honen argitaratzearekin batera irekitzen da, ta aurtengo abuztuaren 22an amaituko da.

7. Sari hauk ezartzen dira:

Lehenengo saria.....7.000 pztta ta trofeoa, biok ZAHARRERANek emanak.

Bigarren saria.....4.000 pztta ta trofeoa.

Hirugarren saria.....Trofeoa, GIPUZKOAKO BANKUak emana.

Halaber, sari berezi bat ezartzen da, KRESALA, Euskal Dantzari Taldea azal dadin argazki hoberenarentzat.

8. Gipuzkoako Fotografiako Elkartearen lekuetan jasotako argazki guztien erakusketa egingo da, irailaren 4etik 16raino.

9. Erakusketa honen azken egunean, epaimahaiaren erabakia jakin eraziko da, baita sari banaketa ere.

10. KRESALA Euskal Dantzari Taldeak argazki sarituen jabetza hartzen du, baita edozein helburutarako beren erabilkera. Gainontzekoak egileei itzuliko zaizkie.

12. Arautegi honek sor lezakeen edozein zalantza erabakitzeke, epaimahaiakoei gaitasuna ematen zaie.


13. Lehiaketa honetan parte hartze hutsak arautegia- ren onarpena adierazten du.

Donostia, 1978ko uztailak 1

SEASKA

GURUTZEGRAMA ^{13.}

14.



14. ZENBAKIA

Gurutzegrama honetan, euskal poema hospatsu baten titulua eta egilearen izena daude.

LUZETARA

1. Gaitza.
6. Garaiko.
11. Alde (Zuberoeraz).
12. Somakari, behari.
14. Ahots.
15. Euskal ethnographo.
18. izan (ihardun).
19. Ifernuaren alde garaiena.
20. Tituluaren lehen hitza.
21. Euskal pelikula. (2 hitz).
23. Ijito. (erdal laburpena).
25. "Nik ... dut amets handirik".
26. Alai.
28. Tituluaren bigarren hitza.
31. Ahari irendua.
33. Orixeren 1950.eko poema.
35. Aitzina.
37. Galburu. (Iparraldean).
39. Tituluaren hirugarren hitza.
42. ... Deum, hymno bat.
44. Nekatu. (Infinitiboa).
45. Atera.
47. Kaspio itsaso eta Persiako Golkoaren arteko herria.
49. Larunbata baino lehen. (Laburpena).
50. Hark ni ikusi ...
52. Tituluaren laugarren hitza.
55. Tituluaren azken hitza.
56. Aintzinako grekoaren dialektuetarik bat.
57. Ongailu bat.
58. Eskola eta unibertsitatea artean.
59. Kroka.

M	A	N	O	T		I	K	A	S	T	O	L	A		
A	P	A	T	A	M	O	N	A	S	T	E	R	I	O	
N	E	F	E	R	T	I	T	I		A		D	U	R	
E	T	A		T	S	A	R		O	B	O	E		T	
X	A	R	M	A		R	A	T		A	M	A	M	A	
		R		L	O	T			A	T	E		E		
I	Z	E	K	O		Z	O	A	Z		N	A	N	O	
Z		R			D	U						R		N	
U	T	A	H		O	N	G	I		L	U	R	R	A	
	X	A	B	A			B	O	A		A				
B	E	G	I	A		A	Z	A		B	A	S	P	E	
I		A	K	R	E		I	R	L	A		T	E	L	
A	L	I		T		A	R	R	A	Z	O	I	A	K	
J	U	L	I	O	C	A	R	O	B	A	R	O	J	A	
E	G	U	N	K	A	R	I				K	O	N	E	R

GOITIK BEHERA

1. Antonio..., bertsolaritzaren historialaria.
2. Soro.
3. Haren semeak " inor salatu baino nahiago du hila".
4. "Agentea" adierazten duen atzizki.
5. Txanda.
6. Sineskeria, mania.
7. Partidu politiko. (Laburpena).
8. Dato bateko zenbaki handiena.
9. Barre.
10. Kotxean ez dagoena.
12. Talde, atal.
13. Poemaren egilea. (Izen osoa; bi hitz).
15. Euritan edo izerditan ...
(asko duen).
16. Dorpe, destart.
17. Oraindik.
22. Kurba.
23. Gerli, serum.
24. Ogia egiteko behar dena.
27. Atzizki adberbial.
29. "... nahi dudana."
30. Bukatu. (Infinitiboa).
32. Kontrarioak.
33. Zoro.
34. Haur.
36. Edari bat.
38. "Garien egiteko... zaituzte".
39. Orain...-komunismoa dugu.
40. Txinpartak, inharrak.
41. Eztarri-zuloa.
43. Baita.
46. ...maikoan.
48. Afaría jan. (Infinitiboa).
49. Arraultzeak ematen dituenak.
51. " Bere buruaz" adierazten duen aurrizki.
53. Positiboaren aurkakoa. (Laburpe).
54. Zehatz.
57. Galio. (Symbolo kimikoa).



ZILARREZKO KRABEIA

Deustuko Unibertsitatean bulego, bibliotheka eta toki publiko gehienak, erdaraz batera, euskaraz ere jarrita azaltzen dira, hemen ikus daitekeenez. Ekintza txalogarri honek, zalantzarik gabe, ikasleen artean giro ona sortzera lagun dezake, eta euskaltzaletasuna biztu ere bai.

Zorionak beraz Deustuko Unibertsitateari eta hori asmatu eta bultzatu dutenei.

IGARKIZUNA

Gelatxo eta gelatxo, eta gelatxo bakoitzean damatxo.

Erantzuna:

Erleen abaraska edo pinaburua.


ESAERA ZAHARRAK

BALIZKO OLAK BURDINARIK EZ. Ez dago olarik, baina balego, olarik balitz, burdina egingo luke. Baina balitz-zko ola horrek ez du burdinarik egiten. Ametsetako gauzek ez dutela probetxurik ekartzen esan nahi du. Antzeko zentzuan, beste hau ere esaten da: baleuka eta balitz, elkarren atzean dabiltz.

Kontserbadore guztien gogoko esaerak dira hauk, ametsetako etorkizun hobeak zapuzten ahalegintzen direnenak. Izan ere, munduan gizonak egin duen guztia aurretik bere buruan izan

zen, pentsamendu edo amets gisa. "Ez da olarik, egia da, baina balitz, egingo banu, ola horrek burdina egingo luke." Hori pentsatu zuena ola egiteko bidean jarri zen eta azkenean bere ametsa lortu.

Horren antzera, Oihenartek beste hau dakar: Bentura dadinak hartza, ez dadinak ez eta bartza. Ausartzen zenak hartza harrapatzen duela, ausartzen ez dena, aldiz, bartza (zorri arraultzea) ere hartzeko gai izan ez zeh artean. Audaces fortuna juvat (= Fortunak ausartak laguntzen ditu) zioten klasikoek gauza bera adierazteko.



Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko projekzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitzen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.



Euskara ikasi: Gurasoek haurrei, ala... haurrek gurasoei?

Eskolara lehen eta ikastolara geroago, haurrak gurasoen eskutik joan izan dira.

Haurrak ikastolan EUSKARA eta EUSKAL KULTURA ikasten ditu.

Baina gero, etxean, zer? Haurrok gurasoak baino trebeago direla askotan. Nola landuko dute ordea euskara, gurasoak etxean erdaraz hitzegiten badiete? Ez al da ba etxea lehenbiziko eskola?

Gurasoak, hurrekiko erantzukizun bazter ezina du gure hernan, euskalduntze, alfabetatzea...

Orangoan gurasoek, hargarna bada ere, haurren eskutik, ikastolara joan beharra dute.

Euskara indarberritzearen alde
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE ZIRRIKIA

EUSKADIko KUTXA